



ARGIA



HITZ EGIN DEZAGUN...

Zahartzeaz, sexuaz eta gizontasunaz

22-26. orriak

#2.722 | 2021 / 02 / 28 | 3,90 €



**Irlanda berdea
pinuz belzten
ari dira**

10 | INGURUMENA



**Aditz-taulak
ikasteko tresna
mugikorrean**

38 | EUSKARA



LARRUN #260
**Emakume
meatzariak**

OPARITU ARGIA

ZAINDU NAHI DUZUN HORRI

Puska dezagun izotza



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN
UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ILUSTRAZIOA:
SHUKARE


Iritziak

- 17 | MIKEL ZURBANO
- 18 | KATIXA DOLHARE
- 19 | BEÑAT IRASUEGI
- 19 | LEIRE NARBAIZA
- 20 | SHEIDA BESSOZI
- 21 | AITZIBER JIMENEZ

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
ANE LEGARRETA
- 54 | BERANDUEGI



35 | "ZUNTZ OPTIKOA ZUMAIA"

Telekomunikazio azpiegiturretan ere landu daiteke burujabetza. Horren adibide bat da Zumaia Udalak, Kataluniako Guifi-net fundazioak eta operatzaile txikiak elkarlanean abiatu duten ZOZ Sarea proiektua: zuntz sarea modu neutro, ireki, libre eta mankomunatua zabalduko du etxe guztietara, Mikel Eizagirrek erreportaje honetan azaldu duenez.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

Klimaren alde zuhaitzak landatu behar... baina pinu hutsezko baso berriek ito dezakete Irlandako landa eremua

Pello Zubiria Kamino

12 | PERTSONAIA | NAIMA EL BANI ALTUNA

"Ez banintz Altuna nire errealitatea guztiz desberdina izango zen"

Miren Artetxe Sarasola

22 | GIZARTEA

Zahartzea, sexualitatea eta maskulinitatea

Zigor Olabarria Oleaga

27 | KULTURA

Zatitutako herria osatzeko grafitiak

Peru Iparragirre

32 | HEZKUNTZA | JOSE MANUEL GUTIERREZ

"Ikasleak sentsibilizatuta daude ingurumen gaietan; pauso bat gehiago eman behar dugu: sumindu"

Mikel Garcia Idiakez

38 | EUSKARA | ADIZKINATOR

Aditz-taulak mugikorrak ikas daitezke

Gorka Peñagarikano Goikoetxea

44 | KULTURA | SOZIALAREN GAIEN ZERGA

Tanger, erreferentziarik ezaren santutegia

Julen Azpitarte

46 | KULTURA | ZINEMA

Istorio bat kontatzeko zilegitasunaz

Ainhoa Gutiérrez del Pozo

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaia Taldeko partaidea

Lehendakaria

Bego Zuza

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Ixone Arana, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Garcia, Oihane Arretxea, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industriaidea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu daitezke, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

A photograph showing a person wearing a black niqab, with only their eyes visible, looking upwards. In the background, the lower legs and feet of police officers in black riot gear and helmets are visible on a cobblestone street.

Belaun aldia

Katalunian, Euskal Herrian eta Espainiako Estatuko hiri askotan, kalera atera dira milaka lagun. Gehienak gazteak. Atxilotutakoak, begia galdu dutenak eta han eta hemen eraikitako barrikada atzean daudenak ere oso gazteak dira. Eta askok, seguruena, azken asteotan ezagutu du Pablo Hasélen musika, baina sumina eragin du kasuaren gordinak: diktadura batean aterpe hartuta ihes eginda dagoen errege frankista ustelaz abesteagatik espetxean da beste abeslari bat, “ezkerreko” gobernu baten agindupean. Baina kasua pizgarri besterik ez da izan, pandemia, debeku, kontrol, prekarietate eta frustrazioa bidaide dituen belaunaldiarentzat. Irudian: Bartzelonako protesta eta istiluetan atxilotutako 130 lagunetako bat —igandera arteko datuen arabera—.





GAUR NI NAIZ, BIHAR ZU
IZAN ZAITEZKE, HAINBESTE
BIZITZA IZORRATZEAREN
ARDURADUNAK
SALATZEAGATIK. GURE
ASKATASUNAK DAUDE
JOKOAN, EZ DEZATELA ERRAZ
LORTU. PULTSU HAU IRABAZI
DIEZAIEKEGU

@PabloHasel



ARGI GERATU DA, BERRIZ
ERE, ESTATU ESPAINOLEAN
EZ DAGOELA ADIERAZPEN
ASKATASUNIK

@lraultza1921



ESPAINIAKO ESTATU
FAXISTAK PABLO HASEL
ISILARAZI NAHI ZUEN
BERE LETRENGATIK ETA
MILITANTZIAGATIK, ETA
KONTRAKO EFEKTUA LORTU
DU. BORROKAREN SUGARRA
INOIZ BAINO BIZIAGO DAGO
ETA GURE ANTOLAKETA ETA
BORROKAREN ESKU DAGO
SUGARRA, ITZALI ORDEZ,
EGUNEZ EGUN HANDITZEA

@Antifa023



PABLO HASEL TANTA BAT
GEHIAGO DA GAIN HARTZEN
ARI DEN EDALONTZIAN

@lupinthebost



EZ AL DAGO HASELEN
KARTZELARATZEAREN
AURKAKO PROTESTEN
ATZEAN GUZTIZ GOGAITUTA
DAGOEN GIZARTE BAT?

@UberrimaR



INDUSTAN TIMES

8 milioi lagun hiltzen ditu urtero erregai fosilen kutsadurak

 ARGIA

8 milioi pertsona baino gehiago hil ziren 2018an erregai fosilek eragindako kutsaduraren ondorioz, aurreko ikerketek iradoki zutena baino nabarmen gehiago. Hala erakusi du Harvardeko Unibertsitateak Birminghamgo Unibertsitatearekin, Leicesterreko Unibertsitatearekin eta University College Londonekin elkarlanean egindako ikerketa berri batek. *Environmental Research* aldizkarian argitaratutako ikerketaren arabera, hilkortasun-tasarik altuenak dituzte erregai fosilengatik airearen kutsadura handienak dituzten eskualdeek: Ipar Amerikako ekialdea, Europa eta Asiako hego-ekialdea.

Orain arte gai honetan erreferentziatzat jo izan den aurreko *"Global Burden of Disease"* ikerlanak –munduko hilkortasun kausei buruzko azterketarik osoenak– kalkulatzen zuen 4,2 milioi heriotza gertatzen zirela munduan aireko kutsaduraren ondorioz, kontuan hartuta aireko partikula guztiak, baso-suteek eragindako hauts eta keak eta nekazaritzak eragindako erreketenak. Nola iritsi dira Harvardeko ikertzaileak kopuru hori bikoiztera? Aurreko ikerketak oinarritzen ziren sateliteek Lurraren gainazaleko behaketetan, horietatik kalkulatzeko PM 2.5 partikulen urteko batez besteko kontzentrazio globalak. Arazoa da, antza, satelite bidezko behaketok ezin dituztela bereiztu alde batetik erregai fosilen emisioen partikulak eta bestetik baso-suteen keak edo beste iturri batzuek sortutakoenak. "Sateliteetatik jasotako datuekin ez dituzu ikusten puzzlearen piezak baino", esan du Harvardeko Loretta J. Mickley.

Kutsadurak bereizteko erronkari erantzunez, Harvardeko Unibertsitateko John A. Paulsonen Ingeniaritza eta Zientzia Aplikatuaren Eskolako ikerlariak GEOS-Chem erabili dute, atmosferako kimikarentzako 3-D eredu. GEOS-Chem ereduarekin ikertzaileek munduaren lurrazala 50 km x 60 km neurriko lauki txikietan zatitu eta bakoitzaren kutsadura maila behatu ahal izan dute. Horrela, jende gehien bizi den eremuetako kutsadura zehatzago aztertu dute, inguru jendetsuoi kutsadura kopuru orokorrago bat ezartzeko ordez.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Salistarrak



ARITZ GALARRAGA

Jaime Rodriguez Salis irundar –orain esango genuke– ekin-tzailea zendu berri da: Oiaso erromatar museoaren bul-tzatzailea, edota Remelluri upategiaren sortzailea, zenbat zorion momentu eskaini dizkidan –batez ere azken horrekin, oh, mama; eta asko esatea da hori, ni bezalako erromatarzale batentzat–. Amaren aldetiko aitona zuen Jose Salis, pintorea; ama bera, Dolores, eskultorea; eta aita Luis Rodriguez Gal, Luis de Urantz, Bidasoako kronikagilea. Haur garaikoak argitaratu zituen 2009an, *El niño republicano de Beraun* izenekoan. Gazte-laniaz, noski, auzokide, ia kalekide zuen Carlos Blanco Aguina-gak bezala –“gure lagunaren artean zeuden Luis Salis, alkatearen semea, eta bere lehengusua, Jaime Rodriguez Salis, gaur egunean negoziogile garrantzitsu eta orduko hartan koadrilako mutiko-rik kokinena”–.

Dena den, esango nuke benetan merezi duena Dolores Salisen liburua dela, *Exilios (1936-1945)*, bizitzari baino –haren hitzetan “una vida vulgar y feliz”–, bizitzea egokitu zitzaion garaiari buruzkoa, 36ko Gerratik Bigarren Mundu Gerrara artekoa, zoriontsua auskalo, baina arruntetik batere ez duena. Laurogei urterekin hasi zen idazten, ikusmenak huts egin, lantzen zuen esmaltea utzi, eta hizki handiko Olivetti batean. Ia hil arte idatzi zuen, 1999an, ehun urte betetzeko hiru hilabete falta zituela: “Zahartzarora gogaikarria da, baina ez dago zertan izutu. Azkar ibili beharra dut; ezen, nahitaez eskuratutako baretasun hone-kin, ematen baitu pasatakoa, urrutikoa, argitasun handiagoz ikusten dela”.

Jaime Rodriguez Salisek idatzi zuen haur garaian euskara oso erabilia zela Irunen. Dolores Salisek bazekien. Luis de Urantzuk haurtzarora pasata galdu zuen. Zer litzateke horiek guztiek euskaraz idatzi izan balute, horiek guztiak euskaraz idatziak izan balira? Jaimeren seme-alabek menperatzen omen dute. Inoiz memoria libururik idaztera animatuko balira, lurralde oso ia bir-jin bat leukakete aurretik. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



“EZ DUGU ESATEN POLIZIAK ZER EGIN BEHAR DUEN, ZER EGIN BEHAR EZ DUEN BAIZIK”

NAFARROAKO SOS ARRAZAKERIA

“Kontrol polizial arrazistak salatzeagatik hainbat sindikatu polizialek kargu hartu” dieten arren, egoera salatzen eta poliziak “zer egin behar ez duen” esaten jarraituko dutela adierazi dute SOS Arrazakeriako kideek. “Poliziaren ekintzak defendatu ordez, arrazakeriatik libre diren espazioetan bizi ahal izateak gehiago kezkatzen gaituen egunean hasiko gara gizarte justuagoa eraikitzen. Ordurarte, zelataria kontrolatzeko eta oinarritzko eskubideak defendatzeko dugun betebeharrarekin segituko dugu”. 2021/02/12



BBVAko soldatatxo horiek



JUAN MARI ARREGI

Carlos Torresek, BBVAko presidentek, 4,09 milioi euro irabazi zituen 2020an -2,45 milioi soldata finkoa-ekin eta 1,64 milioi erretiro-aurreikuspenarentzako-. Banku horretako Onur Genc kontseilari delegatuak, berriz, 3,43 milioi -2,18 milioi soldata eta 1,25 milioi osagarria, ordainsari finko eta mugikortasunerako-. Haien diru-sarrerak askoz handiagoak izan zitezkeen, soldata horiek 2019an baino %44 gutxiago baitira, "pandemia iritsi zenean, Europako Banku Zentralaren gomendio bati jarraiki, ordainsari aldakorrari borondatez uko egin ziolako bankuaren kupulak". Azken egunetan ezagututako datu ofizialak dira. Antzeko soldatak irabazten dituzte Espainiako Estatuko Ibex 35 burtsa indizean kotizatzen duten enpresetako kupula gehienetan, baita Frantziako Estatuko CAC 40an kotizatzen dutenen artean ere.

Patronalen elkarteetan eta antzeko erakundeetan dituzten ordezkariekin presionatuz, enpresari horiek gobernuen politika ekonomikoak, eredu sozialak eta soldatak baldintzatzen dituzte lotsa barik. Espainiako Estatuan, Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren (LGS) eta pentsioen igoerak zelatatu, kontrolatu eta geldiarazi dituzte. Milioika pertsonak, hilero 950 euroko LGS-rekin edo 1.000 eurotik beherako pentsioekin biziraun behar du haien erruz. Beste asko langabezian edo marjinazioan daude. Egungoa bezalako sistema bat -kapitalista-, gutxi batzuentzat hainbeste aberastasun eta gizartearen gehiengoarentzat hainbeste desberdintasun eragiten dituen, bidegabea, insolidarioa eta onartezina da.

Pertsona, talde, elkarte, alderdi politiko, sindikatu... Denon esku dago sistema alternatibo bat eraikitzeak aukera. Gutxiengo batek gehiengo sozial baten lanarekin sortutako aberastasunaz soldata milioiunak izatea eragotziko duen beste sistema justuago bat izateko abagunea. ●



Adostu beharra

XABIER LETONA BITERI

Gobernu independentistaren orena da Katalunian. ANCK iragarri du otsailaren 28an manifestazioa egingo duela honen alde. 2010ean 135 diputatuetatik hamalau ziren alderdi independentistetakoa, orain 75. Badu azalpena kontuak, CiUkoak ziren 62, horien artean Carles Puigdemont, eta beste hainbat independentista ere izango ziren multzo handi horretan. Azken hiru hauteskunde autonomikoetan -2015, 2017 eta 2021-, gehiengo osoz irabazi dute, aise. Gobernu ez independentista, beraz, lekuz kanpo dagoela dirudi.

Bere lekuan dagoena Espainia da: hauteskundeak otsailaren 14an egitea Kataluniako Auzitegi Gorenak inposatu zuen. Kanpaina preso politikoekin egin dute, kartzelatik sartu-irtenean ari zirela, eta egungo parlamentarien %5ek erreferendumen errepresioari lotutako auzi judizialak ditu.

Baina JxCat eta ERC oso gaizki moldatu dira azken koalizio gobernuetan. Begi bistakoa izateaz gain, Puigdemontek ere hala azaltzen du *M'explico. De la investidura a l'exili* liburuan, oso gordin gainera. Presidenteak behin eta berriz jotzen du Oriol Junqueras eta ERCren aurka, erreferendumen aurretik hura egiteko agertzen zituzten zalantzenatik, erreferendumen ondorena prestatu ez zutelako eta Puigdemont bera bakarrik utzi zutelako. ERCko buruzagien salaketa JxCati ere argia da: "Baina zer uste dute, herrialdea beraien dela, ala?". Hala ere, gobernu osatu beharko dute, eta orain nahi dute CUP ere barruan egotea. Hauek prest agertu dira, baina, logikoa denez, baldintzak ez dira makalak, bereziki orain, kale istilu berrien karietara, Mossoen birmoldaketa sakona eskatu dutenean.

Beste gobernu aukera bat: ERC, En Comú eta CUP (eta CUP gabe ere bai). Baina, En Comúren jarrera ikusita, gaitza da irudikatzea nola goberna dezakeen halako exekutibo batek independentiziarantz. Hasteko, PSCren abstentzioa beharko luke. Eta gobernarritasunari begira, batzuetan sozialisten sostengua eta besteetan JxCatena beharko luke. Edozein kasutan, beti gobernu ahula litzateke.

Urriaren 1aren ondoren, *proces*-a noraezean dago, bistan da, baina hortxe daude, aurrera egiteko prest, nola egin asmatu ezinean. 2010eko uztail hartan *estatut*-ari Madrilek egindako orrazketaren aurka Bartzelonan ia milioi bat pertsona kalera atera zenean, inork gutxi irudikatuko zuen hurrengo hamarkadan biziko zutena. Urrats erraldoia eman dute, baina nola jarraitu? Adostu egin behar, ez dute beste erremediorik, bakarka ezin dute. Funtsean, adostu beharko dute epe ertainera begira zein den estatuarekiko izan beharreko konfrontazio maila jasagarria; aurrera egin aldi berean independentismoaren zorua zabalduz. Gobernu eratu behar dute, baina kalearen bultzada barik *proces*-a kale itsura doa. Zoritzarrez, ez da jaio oraindik, arazoari irtenbide demokratikoa emango dion Espainiarik. ●

Lehen aldikoz, independentistak nagusi Kanakyko Gobernuan

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Otsailaren 17an Kanakyko Kongresuko 54 hautetsiek erabaki dute osaketa berria: independentisten aldetik, UC-FLNKS eta UNI Independentziarako Batasun Nazionala taldeek hiruna aulki jaso dituzte, eta Frantziaren baitan egoteko gogoz dabilen L'Avenir en confiance alderdiak lau eta Calédonie ensemble-k bakarra.

LEHENBIZIKO ALDIA

1998ko Noumeako Bake Akordioetarik geroztik ez zen sekulan horrelakorik gertatu: Kanaky edo Kaledonia Berriko Gobernuan independentista kanakak dira nagusi. Bizi duten krisi politikoaren eraginez antolatatu behar izan dituzte bozketa hauek.

ERREFERENDUMA

Noumeako Akordioetan adosturiko independentzia erreferenduma ukanen dute 2022 urte bukaera aitzin. Gobernuak gehiengotik elkarrizketak bideratu beharko dituzte, bai loialistekin, baita Frantziako Gobernuarekin ere. Kongresuak apiriletik aitzina izanen du horretara deitzeko aukera –heren baten babesa nahikoa izanen denez, segur da antolatuko dutela hirugarren erreferendum hau-. Aurreko biak, 2018an eta gero 2020an, Frantziaren baitan gelditzearen aldekoek irabazi zituzten, baina bi urtetan boto asko galduz.



ERRAN.EUS

2.000 HEKTAREA KISKALITA

EUSKAL HERRIA. Otsailaren 20 goizean sua piztu zen Berako bi puntutan, eta hego haize zakarrak lagunduta, Nafarroa, Lapurdi eta Gipuzkoako muga 2.000 hektarea baino gehiago erre zituen bi egunetan, Bera, Lesaka, Urruña, Azkaine, Biriatu eta Irunen barna. Irudi izugarriak utzi zituen suteak, eta handia izan da galdutako ondare naturala. Baieztatu dutenez, norbaitek nahita eman zion su mendiari.

ELIZA KATOLIKOA

1.122

ondare erregistratu zituen Eliza Katolikoak Hego Euskal Herrian, José María Aznarren legegaldian (1998 eta 2015 artean). Espainiako Gobernuak bidea zabaldu berri du, Elizak immatrikulatutako ondasunak erreklamatzeko.



PETRONOR. Muskizeko Petronorren instalazioek petrolio isuri bat izan zuten Barbadun ibaira. Hodi bateko zulo baten ondorioa izan zela adierazi zuen Petronorrek. Zenbait elkarte ekologistek salatu dutenez, inguruko faunan eraginak izan ditu isuriak, eta ez da lehen aldia.



ZENTSURA. Nafarroako Administrazio Auzitegiak legez kontratatzat jo du 2019an Iruñeko alkate Enrique Mayak Pirritx, Porrotx eta Marimototsen kontratua bertan behera utzi izana. EH Bildurentzat argi geratu da "gobernu-taldeak bere obsesio politikoei men egiteagatik zentsura ezarri zuela".



HERIOTZA. 51 urteko Gueñesko basoko langile bat hil zen otsailaren 18an Ugaon, zuhaitz bat moztzen ari zela zuhaitza gainera erorita. Aurten Euskal Herrian lanean hiltzen den zazpigarren pertsona izan da. Iaz, Euskal Herrian gutxienez 75 langile hil ziren lanean.

KLIMAREN ALDE ZUHAITZAK LANDATU BEHAR DIRA... BAINA SITKAKO PINU HUTSEZKO BASO BERRIEK ITO DEZAKETE IRLANDAKO LANDA EREMUA

Irlandak hogeitun urtetan 440 milioi zuhaitz landatu nahi ditu klimaren kontrako borrokan, 2050erako "karbono neutral" izatera iristeko. Urtean 22 milioi zuhaitz landare berri, laurden bat hostozabalak eta beste hiru laurdenak koniferoak. Hori teorian. Praktikan, Sitka izeia deitu koniferoak ikusten dira lur-estali eskualde askotan. Leitrim konderri pobretuan herritarrak ari zaizkio aurre egiten basogintza industrialari.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Jim McCaffrey 64 urteko baserritar erretretaduna Irlandako Leitrim konderrian bizi da, hiru alditan borrokatu du auzitegietan bere etxea eta inguru guztiak itotzen dituzten pinu-zehazki Sitkako izei-plantazioen kontra; hiruretan galtzaile. "Dirurik banu-esan dio *Irish Times* egunkariari iraillean- Goei Auzitegira eramane nuke apelazioa, baita Europako Auzitegiraino ere. Gure etxea hiru aldetatik inguratzen dute izei ilunok, osorik inguratuko zuten tartean aintzira bat izan ez balitz. Zuhaitzok argia kentzen dizute eta inguruarekiko lotura ebasten. Dagoeneko ezin ditut ikusi auzoa soroan lanean, ez inguruko mendiak, ez hiritik datorren errepidea. Okerrago izango da hamar urte barru, izeioi altuera osora iritsitakoan. Landaketa basation aurka ari naiz ondorengo belaunaldien alde, gure semeak eta honen haurrek baserritan bizitzen jarraitu ahal izan dezaten".

Kazetariak McCaffreyri esan dio Irlandako Gobernuak landaketok sustatzen dituela klimaren beroketaren aurkako borrokan CO₂ emisioak konpentsatzeko mekanismoaren barruan, baina baserritarrak uste du ez duela zerikusirik, hau dena dela "*money, money, money*". Landaketok bizi guztia suntsitzen dute, baita lurzorua ere. Eta zuhaitzak denak batera eraisten hasten direnean, *Armagedon* heldu dela dirudi. Bestalde, Sitkako izeientzako dirulaguntzek kanpoko inbertsiogileak era-

karri dituzte eta bertako baserritarrak lurrik gabe ari dira geratzen.

Irlandak datozen hogeitun urtetan 440 milioi zuhaitz landatu nahi ditu, klimaren kontrako borrokan 2050erako "karbono neutral" izatera iristeko. Europar Batasunean klimaren aferan emaitzarik kaxkarrenak herrialdeak, zuhaitzak ero moduan landatuz konpentsatu nahi du nekazaritza industrialak, klase guztietako trafikoei, zentral termikoei eta baita industria digitalak ere gero eta gehiago isurtzen duten CO₂ kopurua. Milioika zuhaitz berri era industrialean landatuak, ahalik eta azkarren haziko direnak, koniferoak ia beti, 30 urteren buruan eraitsita beste hainbestez ordezkatuko direnak, CO₂ kalkuluak hobetuz.

Lur azaleraz Gipuzkoa baino zerbait txikiagoa izan arren, 32.000 biztanle baizik ez dauzkan Leitrim konderria bilakatu da plantazio estrategia berriaren laborategi, Save Leitrim elkarte-koek ironia mikatzez bataiatu dutena "*a national sacrifice zone*", herrialdearen onerako sakrifikatu beharreko eremua.

Irlandak 1900an bere lurrazalaren %1 baizik ez zeukan basoz hornitua. Europa osoak bezala Irlandak ere mende mende bere oihanak galduak zitu, baina hemen soilketak abiadarik handiena hartu zuen XVIII eta XIX. mendeetan, ingeles kolonialismo betean. XX. mendearen erdi aldean ezarritako sustapen politiken eraginez, gaur Irlan-

dak lurrazalaren %11 dauka zuhaitziz osatua, 770.000 hektarea inguru. Klimaren kontrako estrategiarekin, urtero 8.000 hektarea gehiago landatuz lurrazalaren %18a iristea da asmoa.

"Baina okerreko basoak ari dira landatzen", diote Save Leitrimetik: "Zuhaitzi ilun hotzak, basa bizitza hil, egun argia estali eta jendeak isolatzen dituztenak". *The Guardian* egunkariari esan dio Edwina Guckian taldeko ki-deak: "Itotzekoa da zure inguruan eraikitzen duten hesi hil eta iluna". Elkarrekin saiatzen da inguruko herritarrak berotu eta landaketa berrien baimenak blokeatzen. Zenbait alditan zuzeneko ekintzara ere jo dute, landaketan hasiak ziren makinak geldiaraziz.

CO₂ VERSUS BIODIBERTSITATEA

Picea sitchensis deitzen da erruduna, Sitkako izeia, Ipar Amerikatik ekarritako koniferoa, sekua gorria eta Douglas izeiaren ondoren koniferoetan altuena, oso azkar hazten dena 50-70 metro -tarteka 100 ere bai- harrapatu arte. Laketzen da, antza, Irlandako klima heze eta ez hotzegian. Gipuzkoa eta Bizkaiko jendeoi ezaguna egiten zaigu kontua, AEBetako San Frantzisko badiatik ekarritako XX. mendean zehar gurean nagusitu zen intsinis pinuaren (*Pinus radiata*) inbasioa beltza oroitarazten digu, eta bide batez baita eukalipto ere (*Eucalyptus globulus*), azken urteotan -pinuak lehenik harrez eta gero onddoz



HIROSHIMA BEZALA.

EUSKALDUNOK ONGI EZAGUTZEN DUGU PINUDIAK 'MATARRASAN' ERAITSITAKOAN GERATZEN DEN SUNTSIKETA. SITKAKO IZEIEN INBASIOA GELDITZEKO ESKATZEN DUTE LEITRIM ESKUALDEAN. ARGAZKIA: SAVE LEITRIM

gaixotu ostean- horien orde bazter guztietan nagusitzen ari direnak.

Dagoeneko Irlandako zuhaitz guztien erdiak Sitkako izeiak dira, ilara zuzen bezain estuetan pilatuta bete dituzte lehen larre ziren muinoak, behi eta ardien belardiak, ihesi joandako nekazariek abandonatu zituzten soroak... eta baita legez horrelako landaketarik egitea debekatuta daukaten eremu ba-bestuak ere, padura eta beste.

Industriak maite ditu izei-monolaboreak hainbat erabileratarako: papere-tarako pasta, ohol aglomeratu, palet, eraikuntzarako zur... Eta, gainera -horrara negozio lerro berria- atmosferari karbonoa *jaten* diote. Balia ditzake Dublingo Gobernuak CO₂ isuriak ez gutxitzeaz gain energia berriztagarrietan atzeratuegi joateagatik Europatik erori-

ko litzaizkiokkeen isunak arintzeko.

"We're not anti-trees, we're anti-this" diote Save Leitrimekoek, zuhaitzen kontra ez, *honen* kontra daudela. Eta *hau* zuhaitz exotikoetan oinarritutako monolabore industrial oso bat da, herritarren egunerokotasuna hondatu, ekologia kaltetu eta landa eremuko gizartea hondoratzeko ari dena. Nekazaritza bizitzeko ahalegintzen diren azken laborariek aparte, beste askok beren lurrak Sitkako izeiz landatzen dituzte... ondoren prezio hobean saltzeko. Eroslerik ez da falta: urrutiko baserri industrialen jabeak beren CO₂ emaitzak berdindu behar dituztenak, paper eta zur industriako konpainiak lur merke gosez dabiltzanak, espekulatzen dabiltzan inbertsiogileak, eta abar. Sitkako izeiaren inguruko pole-

mikan, estrategiaren bultzatzaile nagusia den gobernuaren ikerketa batek zioen koniferoen jabe gehienak bertako herritarrak zirela. Save Leitrim egin behar izan zuen bere ikerketa propioa estatistikak zuzentzeko eta erakusteko, zuhaitzen jabe guztiak behar bezala kontabilizatuz gero, ororen buru pinu ilunen laurdena bakarrik dagoela bertako biztanleen jabegoan, gainerako hiru laurdenak direla edo estatuarenak, edo Irlandako konpainia eta beste lurjabe handienak, edo atzerriko inbertsiogileenak.

"Izeiok sortzen duten baso estu bizi-gabe eta isila heriotza-kondena dira gure herrirentzako", dio McCaffrey laborari jubilatua. "Eta makinek gero baso horiek eraistean dena suntsituta uzten dute. Hiroshima dirudi". ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

info@zinkunegioptika.com

www.zinkunegioptika.com



Naima El Bani Altuna

EZ EDOZEIN EUSKALDUN, ARTIKOAN



EZ BANINTZ ALTUNA NIRE ERREALITATEA GUZTIZ DESBERDINA IZANGO ZEN



Foraminifero izeneko fosil txikien oskolak aztertuta datu asko lor daitezke garai bateko itsasoaren tenperaturaz, uraren oxigeno tasaz, eta beste hainbat parametroz. El Banik oskolik balu, asko esango luke gure inguruaz ere. Baina, zertarako itxaron ez duen eskola fosilizatu arte, zuzenean galde badakioke?



MIREN ARTETXE SARASOLA



NAIMA EL BANIK UTZIAK

Nola irudikatu behar dugu geologo bat txikitan? Kaleko harriei begira? Harri-txintxarrak poltsikoan?

Ez, ez. Harriak ez zitzaizkidan interesatzen. Itsasoa bai, baina harriak ez. Geologiak ez zuen inoiz nire interesa piztu, 17 urterekin bidaia bat egin nuen arte Norvegiako hegoaldera, autobusez eta kanpinez kanpin, ama eta ahizparekin. Orduan ikusi nituen fiordoak, eta hura izan zen lehen aldia geologian interesa sentitu nuen.

Ordurako banekien zientziak ikasko nituela, hori bai. Ama biologoa da, eta irakaslea zen. Berari esker gustatu izan zaizkit zientziak betidanik. Batzuetan ikastetxeko laborategira eramaten

gintuen, eta bere gauzak erakutsi, edo merkatura joaten zen eta txerri baten bihotza ekartzen zuen guri erakusteko... Nik, berez, itsas zientziak ikasi nahi nituen. Baina, horretarako Galiziara joan beharra neukan, edo Tenerifera, edo Bartzelonara. Eta ama ez zegoen oso konbentzituta. 18 urterekin hain urrun... Eta esan zidan, “zergatik ez duzu egin karrera orokorrago bat eta gero espezializatu itsas zientzietan? Biologia egin eta gero itsas biologia, edo geologia eta gero paleo-ozeanografia”. Eta horixe egin nuen.

Geologia ez al da petrolioa eta gasa ustiatzen ikasteko gradua?

Ez, ez. Hori baino gehiago da. Niri ikasketak asko gustatu zitzaizkidan. Mundua beste begi batzuekin ikusten hasi nintzen. Bilboko kaleetan zehar, hirian bertan Ereñoko kareharri gorriak ikusten nituen, bebarruetan eta atarietan egoten direnak... Orban txuriak ageri zaizkie, eta orban horiek fosilak dira; orain dela ez dakit zenbat milioi urte bizi zirenak, Euskal Herria tropikala zenean, literalki. Euskal Herria garai hartan ekuatoretik askoz hurbilago zegoen, itsasoa oso sakonera txikikoa zen, eta koral arrezife pilo bat zeuden... Pentsatzea ere gaur egun ikusten ditugun Euskal Herriko mendi altuenak orduko koral arrezife haiek direla... Izugarri gustatzen zait



mundua horrela ulertzea. Perspektiba aldarazi dit. Historiaz. Denboraz. Gero pazientzia gutxikoa naiz izatez eta horrek nire bizitza pertsonalean ez dakit aldaketa zuzenik eragin ote duen... Baina beste begi batzuekin ikusten dut nire ingurua.

Eta nola iristen da bat foraminiferoak ikertzera?

Esan bezala, itsasoak beti erakarri izan nau. Ez txikitan astebururo joaten ginelako. Ez dut gogoratzen gurasoekin hondartzara joan izana. Baina, nire izeba Deban bizi zen, ibilaldiak egiten genituen itsas bazterrean, eta maskortxoak jasotzen zituen hark urertzean... Ez dakit zergatik erakartzen ninduen itsasoak. Baina, kontuak kontu, gradu amaierako lana egitea egokitu zitzaidanean, galdetu nuen ba ote zegoen geologiako departamentuan itsasoarekin zerikusia zuen edozer gauza ikertzen zuen norbait. Eta Alejandro Zearreta aurkeztu zidaten. Hark esan zidan proiektu bat zeukala foraminiferoen bidez Debako estuarioaren eboluzioa berreraikitzeke –foraminife-

roak itsasoan bizi dira eta itsas azpiko lur-sedimentuetan organismo horien fosilak aurki daitezke–.

Debako estuarioan badago meandro bat, lehen baserri bat zegoena, eta bertakoak ziren ikerketa horretarako laginak. Nire izebak ahateak ikustera eramaten gintuen baserri hartara. Nik 15 urte nituenean hil zen izeba, eta pentsatu nuen “hau seinale bat da; hauxe da nire gradu amaierako lana”. Hala hasi nintzen foraminiferoak aztertzen, azken izotz aroaren ostetik hona Debako estuarioak zer garapen izan duen ikertzeko. Eta oso ondo pasatu nuen.

Eta foraminiferoek berriz fiordoetara eraman zaituzte. Zure interes geologikoaren iturburura...

Bai, Tromsø fiordo batean dago, eta, beraz, fiordo batean bizi naiz orain. Gradua bukatu eta itsas zientziak ikastera joan nintzen Bordelera. Han bi urte egin nituen, eta master amaierako lana egiteko garaian Frédérique Eynaud-engana jo nuen. Berak ere foraminiferoak ikertzen zituen. Foraminiferoen bidez Bizkaiko

golkoa edo Marokoko ozeano atlantiko-ko aldea ikertu nahi nuen. Eta emakume hark justu biak ikertu izan ditu. Beraz, zuzen-zuzenean berarengana joan, eta esan nion: “Nik hau egin nahi dut”. Eta berak, “Oso ondo. Primeran. Baina, artiko-ko lagin batzuekin lanean ari den proiektu batean laguntza behar dute foraminiferoekin, hauek identifikatzeko, eta ordenatzeko.... Gustatuko litzaizuke parte hartzea?”. Zer egingo nuen ba nik? Baietz esan nion. Artikoa oso exotikoa zen. Azkenean Artikoari buruz egin nuen lan hura, eta lanaren harira Kanadako ikerketa batean parte hartzeko beka bat eman zidaten. Han nengoela, berriz, Tromsøko Unibertsitateko lan eskaintza baten berri jaso nuen, foraminiferoen bidez iraganeko ozeanoak ikertzeko. Eta hementxe nago. Bizkaiko golkoa ikertu nahi nuelako.

Zer ikertzen duzu, zehazki?


Foraminiferoen oskolaren konposizio kimikoa aztertzen dut. Urpeko lurreko laginak hartu, eta bertako foraminiferoak aztertu. Oskol horien elementu ki-

Naima El Bani Altuna

BILBO, 1993



Paleozenografoa da. Geologia ikasi zuen EHUn, eta ordutik hona bere bizitza foraminifero izeneko itsas mikrofosilen ikerketari loturik dago. Bilbotik Bordelera joan zen paleo-zeanografia eta sedimentologia masterra egitera, handik Kanadara, eta azken hiru urteotan Artikoko foraminiferoak ikertzen dihardu Norvegian, Tromsøko Unibertsitateko Geozientzien Sailean.



mikoek informazioa ematen digute bizi izan ziren garaiko inguruneaz. Magnesioa, adibidez, tenperatura indikadore bat da. Zenbat eta magnesio gehiago oskolean, orduan eta tenperatura altuagoan bizi izan zen seinale. Espezieek ere informazioa ematen dute. Foraminifero batzuei era hone-tako algak jatea gustatzen zaie, bes-teei halakoak, batzuei oxigeno askoko urak, beste batzuei ur beroagoak ala hotzagoak... eta lagin bakoitzak infor-mazio asko eman dezake foraminifero horiek bizi zireneko itsasoez, eta kli-maz. Itsasoa ulertu behar baita klima ulertzeko; eta alderantziz.

Elkarrizketa hau argitaratzen denean espedizio batean izango zara, artikoa, laginak jasotzen. Zer da espedizio bat artikoa?

Aurretik lan asko dago. Bertan, nor-malean hiru aste izaten dira. Barkuan, gehienetan, biologo, kimikari eta geo-logoak egoten dira. Eta marinelak, ka-pitainak, garbitzaileak, eta ingenia-riak. 40 edo 30 pertsona, barkuaren neurriaren arabera.

Marinel guztiak gizonak izaten dira –emakume bat bera ere ez dut ikusi inoiz–. Garbitzaileak emakumeak de-nak. Eta sukaldariak ere bai. Sukaldari nagusia izan ezik. Zientzialarien ar-tean denetarik egoten da. Nire zuzen-daria emakumea da eta bere kolabo-

ratzaile asko dira emakumeak. Egon naiz emakume zientzialariz soilik osa-tutako espedizioaren batean. Ingenia-riak, aldiz, gizonak izan ohi dira. Eta hantxe denak.

Hamabi orduko lan eguna izaten dugu. Oso nekagarria da. Ez da bule-goko lana izaten, lan fisikoagoa iza-ten da. Laginak hartu eta hartu. Oso garestia denez horrelako barku bat artikora ateraraztea, laginak hartzen ditugu gure bizitza horren baitan ba-lego bezala. Oraingoan harri sedimen-tuen poroetako ur laginak hartzera goaz, esaterako. Baina, horrez gain, esperimentuak ere egiten dira ber-tan. Eta horretan ere lagundu behar da. Zure txandaren barruan, edozer egokitu dakizuke. Auzolana. Proze-dura oso zehatzak dituen auzolana. Protokoloak argi adierazten du nork egin behar duen zer, noiz, nola... Bes-tela kaosa da. Horregatik eskatzen du aurre-lan asko. Eta umore ona, elkar-bizitzarako.

Ez dago internetik. Liburuak era-man behar dituzu, serieak deskar-gatuta, puntua egiteko artilea eta orratzak... Zeren eta hamabi orduko txanda dugu, baina gero beste hamabi ordu datoz, eta zer egingo duzu? Ka-maroteko literan edo paisaiari begira egon. Zoragarria da paisaia. Lau mila metro ur ditugu oinpean, baina ez gara ohartzen. Gainazala izoztuta dagoenez



basamortu zuri bat ikusten da. Ez dago ezer. Ezer ere ez. Baina, tarteka, fokak ikus daitezke, edo hegaztiak, edo baleak. Konkorra ikusten zaie. Ura nola botatzen duten... Eta hartz polarrak ere bai. Hurbil samarretik behin bakarrik ikusi ditut. Orain dela bi urte izan zen. Itsas izotzean genbiltzan 82º latitudean, eta bat-batean han agertu ziren, ama bat eta bi kume. Sukaldean bazkaria prestatzen ari ziren, eta usaindu egin zuten... Kapitainak bozgorailutik abisatu zigun eta haiek ikusitakoan negarrez hasi ginen.

Artikoan ez zaudenean, Tromsøn zaude. Nola bizi da bat Laponian?

Orain ondo! Azaroa da tristeena. Hilabetea bera oso grisa da, eta bukaera aldera hasten da 24 orduko gaua. Aldaketa progresiboa da eta egokitu egiten zara, pixkanaka. Baina oso etsigarria da. Urta-rrilean, berriz, eguzkia ateratzen hasten da berriz, eta izugarri eskertzen da. Progresiboa ez dena landareena da. Maiatza aldera elurra urtu egiten da, eta dena zuri ikustetik udaberria izatera pasatzen da astebetean. Dena berdatzen da, eta ezer ez zegoen lekuan metro bateko landarea hazten da ia gauetik egunera. Izugarria da.

Gainerakoan, argi eskasia kudeatzen ikasten duzu. Bulego-kideek eguzki argia simulatzen duten lanparak dituzte. Nik bitaminak hartzen ditut egunero, badaezpada. Batzuk haserreago egoten

dira. Nik nekea izaten dut. Baina egoera honetan ez dago jakiterik zenbat den D bitamina falta, pandemia, edo berezko umore txarra!

Hemen badute esaera zahar bat: “Ez dago eguraldi txarrik, arropa txarrak baino”. Alegia, eguraldia dena delakoa izanda ere, egin egin behar direla gauzak. Ez dagoela argirik? Hartu frontala eta eskia-tu. Mendira ilunetan? Lehen erokeria irudituko zitzaidan, baina hemen egin dut. Ez daukazu beste erre-mediorik! Naturarekin lotura zuzenagoa dute hemen. Mendira joan zaitezke autobus publikoan. Itxialdian, go-bernuaren mezua zen egoteko etxean, baina, mesedez, ateratzeko kanpora pixka batean bazen ere. Ez elkartzeko jendearekin, baina joateko mendira. Emateko itzuli bat kanpoan.

Bertara ohitu zarenerako, ordea, alde egin behar?

Hori bera. Lan kontratua maiatzean bukatzen zait. Hortik aurrera ez dakit non eta zertan egingo dudan lan. Hemen inguruan topatzen saiatzen ari naiz, baina zientzian lan egin behar badut, eta nire arloan segi, mugitzea egokituko zait. Nolabaiteko egonkortasuna lortzerako

denbora asko pasa daiteke. Eta herrialde, jende eta kultura berrietara etengabe egokitu behar izateak alde onak ditu –aspertzeko denbora gutxi daukazu–, baina mentalki eta emozionalki hori kudeatzea oso *heavy* da. Energia asko inbertitu behar duzu, jakin gabe horrek zenbat denboran balioko dizun.

Nire aitag egin zuena errepikatzen ari naiz, funtsean.

Bera marinela zen eta Casablancatik Bermeora lanera etortzeko aukera sortu zitzaion. Baina berak migratzeko izan zituen baldintzak eta nireak oso ezberdinak dira. Ni ez naiz migrantea. Ni expatriatua naiz, ekintzailea...

Eta Euskal Herrira datozenak zer dira ba?

Ikerketan lan egiteak nahitaez dakar prekarietate modu bat. Nire etorkizun hurbilerako asmoetan ez dago, adibidez, umeak edukitzea, edo ez dut bes-telako zaintza lanik aurreikusten, baina hala balitz, arazo bat litzateke. Hortik zenbakiak. Doktoregaien artean, geologian, emakume eta gizonak erdi eta erdi gara hemen, binarioki hitz eginda. Baina eskaileran gora eginez gero, alde nabarmena da. Hemen, geologian hiru irakasle emakume baino ez daude. Nire zuzendaria izan zen lehena 2004an.

“
**Marinel guztiak
gizonak izaten dira
–emakume bat bera
ere ez dut ikusi inoiz–.
Garbitzaileak emakumeak
denak. Eta sukaldariak ere
bai. Sukaldari nagusia
izan ezik”**

Norwegian, 2021ean, %20 baino ez dira. Pentsa. Kontua ez da belaunaldi berriak etorri ahala hau aldatuko dela eta betiko ipuina. Ez. Bidean jendea galtzen da, eta ikusi behar da zergatik.

Laponian zeundela @artikoan twitter kontua ireki zenuen, euskarazko zientzia dibulgaziorako, besteak beste. Zergatik dibulgatu euskaraz?

Twitter kontua euskaraz ireki nuenean hemengo lankideek ez zuten ulertzen. Zer da. katalana? Dialekto bat? Zaila zen azaltzea zergatik idazten nuen euskaraz.

Baina, nik geologia euskaraz ikasi dut. Gaztelaniaz ere bai, ikasgai batzuk ezin zirelako euskaraz ikasi EHUn. Italian Erasmusa egin nuenean italieraz eta Frantzia frantsesez. Eta ingelesez ikertzen dut. Hizkuntza askotan egin nezake dibulgazioa, baina euskaraz egin nahi dut.

Jende askok egiten du dibulgazioa ingelesez ingelesa ez izan arren. Eta jendea egiten ari bada ingelesez zergatik egin behar dut nik ere? Nik nahi dudana da nire amak ulertzea zer egiten dudana. Nire izebek jakitea zeren gainean esertzen diren Debako hondartzara joaten direnean. Hori alde batetik. Eta bestetik, guk egiten ez badugu nork egingo du? Ez dut euskara erromantizatu nahi. Euskarari eman diezaiokegu guk nahi dugun balioa; eta beste edozein hizkuntzari ematen diodana emango nioke. Eta balio hori ematea da dena euskaraz egin ahal izatea, zientzia barne.

Hasieran zure Twitter kontuan ez zen zure izenik ageri. "Euskaldun bat artikoa" zinen, eta foraminifero



baten argazkia zenuen profilean.

Halaxe da. Neutro-neutro. Kezka nuen deslegitimatuko ote ninduen horrek. Uste nuen nire izena eta argazkia jarzteak jendearen begietara balioa kenduko ziola esaten nuenari. Emakume izateagatik, ez edukitzeagatik izen euskaldun bat... Nola Naima El Bani Altuna? Zer da hori?

Hasteko, ikerketa eremu hau, oso gizonena izateaz gain oso zuria ere bada -gizonena, zuria eta heteronormatiboa, dena esan behar bada-. Eta gure euskal eremua ere, zer esango dizut ba... Nire azal kolorea ez da aitarena bezain iluna, eta horrek pribilegio asko eman dizkit. Baina, Naima naiz, eta txikitatik aurkeztu nire burua esanez ama euskalduna dudala eta aita marokoarra. Ez diezadaten galdetu nongoa naizen; alegia,

Bilbokoa, baina nongoa. Eta autodefentsa mekanismo hori sortu behar izan badut eguneroko bizitzan, pentsatzen nuen "zer ez ote dut aurkituko sare sozialetan?". Behin nolabaiteko arrakasta lortuta jarri nituen argazkia eta izen-bizenak.

Euskararekiko nire lotura ere zalan-tzan jarria sentitu izan dut maiz. Askotan entzun dut, esaterako, ondo egiten dudala euskaraz. Ba noski baietz! Pribilegio eta zorte handia dut nire ama euskalduna delako eta ni euskaldun zaharra naizelako. Leku batzuetan ez da pribilegioa, inondik inora, euskalduntasunarena, baina beste espazio batzuetan bai, eta horrek asko lagundu dit. Euskaldun berria izan banintz, edo ez banintz Altuna izan, nire errealitatea guztiz ezberdina izango zen. ●



bat Soziolinguistika aldizkaria



SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

BAT 117 / TXILLARDEGI-HAUSNARTU SARIAK (2020)

ENEKO GORRI > ONGI ETORRI. Euskaltzaletasuna sendotzeko ekosistema komunikatiboa.

GARIKOITZ GOIKOETXEA > Euskara Tolosaldean: kartografia bat.

AINHOA MORÓN, BEÑAT GARAIO > Tokiko komunikabideak hizkuntza biziberritzeko eragile: Ipar Euskal Herriko eta Yukatan penintsulako hiru kasu-azterketa apreziatibo.

SERGI ANGULO > Gasteizko Udalaren erabilera plana. Interes-taldeen elkarriketa.

ENAITZ GUTIERREZ POZUELO > Euskarazko kazetaritzako ahozko elkartrukeak aztergai: baldintza komunikatiboen eragina solasaren antolamenduan.

SOZIOLINGUISTIKAREN MUNDUKO LEIHOA
Liburu berri hautatuak soziolinguistikaz

harpidetu edo oparitu > URTEAN 40 euro

www.soziolinguistika.eus/bat/harpidetza / 943 592 556 / bat@soziolinguistika.eus



Iritziak

Desberdintasunaren pandemia



MIKEL ZURBANO
EKONOMIALARIA

Espainiako Estatuak azken hamar-kadetan nozitu duen hondamendi ekonomiko handienaren erdian bertan desberdintasun ekonomikoak gora egiten ari dira. Oxfamek Davoseko foroaren testuinguruan argitaratutako txostenak erakusten du 2020 urtean Espainiako Estatuko mila milioi dunen kopuruak gora egin zuela 26 izateraino eta hauen ondarea %33 igo zela urte bakar batean. Txanponaren beste aldean, bere lana edo negozioak galdu edo narriatzen ikusi duten pertsona ugari daude. Eta lehendik ere oso zabalduta zegoen pobrezia arrisku egoera areagotu egin da horietako askorentzat.

Pandemia garaiko mila milioi dunen aberastasunaren hazkunde hau gaixotasunari aurre egiteko ezarritako neurri nagusietako baten kostua bera gainditzeko, aldi baterako enplegu-erregulazio espedienteena (AEEE-ERTE) alegia. Halaber, aberatsen sarrera igoera hori ia osasun gastuaren gehikuntza baino lau aldiz handiagoa izan da.

Azterketaren arabera, COVID-19aren eraginak aurreko krisiaren urte gorrenetan nozitutako desberdintasun indizeak berrezar ditzake. Eta arrisku horren oinarrian zaurgarrienak diren pertsonen enplegu galera dago, hots, gazte, emakume eta migratzaileena. Egunean 16 euro baino gutxiagorekin pobrezia egoera larrian bizi diren pertsonen kopurua 5,1 milioiokoa izatera

2020 urtean Espainiako
Estatuko mila
milioi dunen kopuruak
gora egin zuen 26
izateraino, eta hauen
ondarea %33 igo zen

hel liteke Estatuan. Beraz, pandemia aurretik biztanleriaren %9,2 izatetik %10,86ra igoko litzateke aurtentzat.

Txostenaren esanetan AEEEak funtsezkoak izan dira pobrezia eta desberdintasunaren igoera mugatzeko, 700.000 pertsona baino gehiago pobrezian erortzeko arriskua saihestuta. Bestalde, onartu zen bizitzeko gutxieneko diru sarrera aurreikusitako 850.000 etxetatik soilik 160.000ra iritsi da, gobernu zentralaren esanetan. Joan den urteko bigarren zatian diru sarrera zegoen etxe guztietara iritsi izan balitz 277.000 pertsona pobreziatik ateratzea lortuko zukeen.

Horrenbestez, politika publikoetako esku hartzea funtsezkoa izaten ari da pandemiaren krisiaren eragin kaltegarrienak leuntzeko, AEEEek eta gutxieneko diru sarreraren lerroek erakusten duten moduan. Oxfamen txostenak neurri

sorta zabala proposatzen du desberdintasunaren igoera honen errotzea sahisteko. Besteak beste, AEEEak ordezkatzeko enplegu politika alternatiboak garatzea aholkatzen du erakundeak. Horretarako eredu produktiboaren hobekuntza, enplegu duina bermatzen duten enpresentzako laguntzak, eta behin behinekotasuna, aldi baterakotasuna zein azpikontratazioa arautuko dituzten neurriak indarrean jartzea lehenesten du. Aldi berean, gutxieneko diru sarreraren estaldura hedatzea eskatzen du, haurren pobrezia jaitziera azpimarratzen.

Nolanahi ere, esku hartze integrala eskatzen du desberdintasunaren aurkako borroka eta hemen gakoak, beste behin ere, zerga politikaren norabide aldaketa da, errentaren birbanaketa bidezkoagoa gauzatzeko tresna nagusia den neurrian. Zerga progresibitatea aldarrikatzen dute Zucman eta Sáez ekonomialariek ere bere azken liburuan (*Injustiziaren Garaipena*) muturreko desberdintasunen aurka egiteko. Oxfamek norabide bereko zerga erreformaren alde agertzen da bere txostenetan. Progresibitatearen aldeko erreforma, zerga ihesaren eta saihestearen kontrako neurriak indartzea ekarriko duena. Ezin dugu aipatu gabe utzi azkeneko hamarkadan sozietateen gaineko zergaren pisua nabarmen jaitsi dela eta pandemiarekin are gehiago hondoratu dela. ●

Ihauteriak sakatrapu, noiz arte eskapatu?



KATIXA
DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA



ANTTON OLARIAGA

Aurten, otsailaren 16an genuen astearte ihauteri. Aspaldiko usaia dugu ihauteriak ospatzekoa gure gizartean. Sinbolikoki, ekitaldi artistiko erritualizatuari esker, garai horretan gain azpiz ezartzen dira bata eta bestearen rol sozialak, epaitzen eta kondenatzen dira justizia arruntak hunkitzen ez dituenak, autokritika zorrotz bezain alegera egiteko parada ezin hobea dugu ere. Toki frankotan, suaren bidez garbitzen dira urteko nahigabeak eta izadiaren iratzartzearekin batean, hatsa berriz hartzen du jendarteak. Baigorri-Aldudeko ibarrean, ihauterietan, udaberria eta itxaropena sinbolizatzen duten karatoxa dotoreek garaitzen dituzte zirtzil zikin eta oihasak.

2021ean, alabaina, ihauteria guti ospatuko da han eta hemen: ondorioz, sinbolikoki ere ez ditugu baltsan uzkaile-raziko askatasuna murrizten diguten legedi berriak, ez ditugu trufa salbagarri jukatuko arau horien asmatzaileak, izurriari eta izurriaren eraginei begira mugarik ez dugu markatuko. Gehiago dena, ez dugu kolektiboki irri eginen gure buruaz, gibelapenik ez dugu hartuko elkarrekin, ez gara publikoki zirtoka eta bertsoka ariko gure gogo-bihotzak arintzeko eta biziberritzeko.

Alderantziz, irudi du etengabeko tentsio batek harrapatu gaituela: osasunaren izenean, hatsanturik gabiltza goizetik arrats eta berdin gauaz lan egiten, zapaltzen gaituen makina ekonomikoa ez dadin geldi, estatistikak ez daitezen jaits ala igo. Ematen du biziraupen kolektiboaren izenean, zuzen errateko produktibitatearen izenean, norberak onartu behar duela bere burua jo ta ke leher eginaraztea.

Giro horretan, zenbaitzuek ahantzi-ko dute beren burua, inguruko lagun behartuak salbatzen saiatzeko; besteek aldiz, aldarrikatzen zituzten printzipio handiak ukatuz berdin, beren burua salbatzea baizik ez dute izanen gogoan, gosta ahala gosta –eta hori uler daiteke, oinarritzko beharrak aseak ez direnean, bakoitzak berea baizik ez dezake izan gogoan–. Joera kolektibo horri etenik edo mugarik ez markatzeak –sinbolikoki lehenik, adibidez ihauteri kari, ondolik errealki–, nahaskeria sozial itsuenera eta hondarrean barbarismora, gerla basara eraman gaitzake.

Ene ustez, gazteria da bortizkienik joa. Egun hauetan entzuten da haurrak trenpu txartzten direla maskarengatik, arazo psikologikoak areagotu eta

areagotuko direla gazteriaren baitan, unibertsitateetako ikasleak engoitik jateko, garbi egoteko eta aterpea atxikitzeke kezkarrekin daudela egun osoan, modu mugagabea, helduok ez diegualako egoera horren bururatzerik bermatzen ahal.

Segur naiz bizkitartean gazteriak argi dauzkala etorkizunerako erronkak, aldaketa klimatikoari aurre egiteko beharra, mundu heineko zuzentasun soziala helburu, tokiko ekosistema natural eta humanoak babestuz. Ez dut dudatzen egungo gazteriak, hainbeste pairaturik aitzineko belaunaldiek utzi dioten munduan, ez dituela aitzineko ereduak erreproduzitu nahiko.

Amesten dut aurtengo udaberri has-tapenean ez bada, ahal bezain goiz ospatuko direla inoiz ikusiak izanen ez diren ihauteriak, eta karatoxa gazteek zirtzil zaharroi gaina hartuz, behartuko gaituztela infernuko martxa hau gelditzera eta arnas hartzera, zinezko bizia zaintzeko eta gozatzeko. Aldudeko ibarraren sartzean, “Lana” hitza dago aspaldidanik tindaturik zentrala hidroelektrikoaren pareta xuriaren gainean; urrunago, “Lan guttiago, orgasmo gehiago” dute idatzi gazteagoek. ●

Herri Kooperatiben denbora



**BEÑAT IRASUEGI
IBARRA**
KOOPERATIBISTA

Ez dirudi erraza, baina badut notizia on bat, Herri Kooperatiben denbora dator, badira proiektuak eta berriak datoz. Gure auzo, herri eta eskualdeetan bizitza bizigarriak denontzat posible egingo dituen ekonomia antolatzea, ezinbesteko ekimen herrigilea bihurtu da. Izan udalgintza eraldatzailearen baliabideekin, herrigintzako eragile antolatuen ikuspegiarekin edo lurraldetutako kooperatibismoaren bultzadari esker. Tokian toki ekonomia herritarron beharrei erantzunez antolatzeko ordea, bi elementu ezinbestekoak dira: garapen estrategia burujabe bat eta lanerako tresna kolektibo eraldatzaileak. Egungo tokiko garapen eredu neoliberalen aurkitzen zailak diren elementuak.

Lanerako tresna juridikoetan kokatzen dut Herri Kooperatibak sortzeko ildoak, ekintzailetza sozial kooperatiboan gabiltzanok beharrezko ikusten dugun laneketa (<https://etzi.pm/herri-kooperatibak>). Auzo, herri edo eskualde batek beharrezko dituen zerbitzuak eskaintzeko herri egitura da, elkarlan publiko-kooperatibo-komunitarioaren bidez antolatua, eta forma juridiko ezberdinak hartu ditzakeena. Sortzen den egitura juridikoak, komunitatearen sustengua izango du, eta proiektua gauzatzeko pertsona eta eragile ezberdinek tira beharko dute, bidean ha-

rreman komunitarioak ehunduz, bazkitzea anitzen bitartez, eta emaitzarekin komunitateari indartzeko baliabideak eskainiz. Horretarako hainbat beharren antolaketa bermatuko du kooperatibak, lan burujabearen eta jabetza kolektiboaren bitartez, elikadura agroekologikoa, energia berriagarriak, komunikazio libre eta seguruak, zaintza kolektiboak edo kultur sorkuntza, emanez. Herri Kooperatibak komunitatea josiko du, beharrezkoa bada tresna ezberdinak federatuz edo bakarrean integratuz, eta beste herrietako kooperatibekin saretuz, lurralde kohesiorako eta komunitateen arteko elkartasun bide berriak lantzeko harreman berriak sortuko dituztelarik.

Ipar Euskal Herrian badugu eredu on bat, SCIC edo Interes Kolektiboko Kooperatiba Elkartearen izenekoak, proiektu interesgarrien bidez garatzen ari den tresna juridikoa. Txingor hodeitzak ere baditugu inguruan ordea, kontzeptuen apropiazio merkantilistaren formarekin, edo bidea egiteko Hegoaldean behar ditugun lege kooperatiboaren eskasiarekin.

Lurraldea, elkartasuna eta etorkizun bizigarriak ekonomian txertatzeko, irudikatu eta sortzeko dauden Ekonomia Eraldatzailearen legeetan jaso ditzakegu Herri Kooperatibak garatzeko proposamen juridikoak. ●

Zartadak



**LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI**
IRAKASLEA

Orain urtebete lehertu zen dena, amildu zen magala Eitzagan. Hala ere, amiltze horren benetako arrazoiak zeintzuk diren ez dakigu oraindik. Zabor olatu erraldoiak beste horma batzuk ere zartatu zituen, barnekoak. Nire barruan eta beste askoren barruan. Zartatu zen agintarienganako geneukan konfiantza txiki hori. Uste genuelako —txarto ala ondo, gustatu ala gustatu ez—, kargudunak gu babesteko zeudela halako hekatonbe larri baten aurrean. Konturatu ginen ezetz.

Ikasi dugu ez garela ezer euren dako, ez diegula ardura, orduko hartan inguruko

biztanleok babesgabe eta abandonatuta laga gintuztelako. Inork ganorazko argitasunik ez zigan eman. Bitartean, gu noraezean genbiltzan, ezer aditu ezinda. Ez-itzultze puntu bat izan zen, eta batzuei behingoz begiak zabaltzeko balio izan zigan.

Tristeia da guztia. Tristeia, Alberto eta Joaquín galdu zirelako. Tristeia, hondamendi ekologikoa eragin zuelako. Tristeia, desanparoa bizi izan genuelako. Tristeia, bertan zer dagoen ez dakigulako. Baina tristeena da gogoia arrakalatu zigunak —zabortegiak azaleratutako sistema ustelak— zartatu digula konfiantza. ●

Emakumeen rola Irango historian



SHEIDA BESOZZI
IKERTZAILEA

Hogei urte bete dira Irango Iraultza 1979ko otsailaren 11n amaitu zenetik. 1977 eta 1979 artean, indarkeriarik gabeko erresistentzia zibileko hainbat protesta piztu ziren, Pahlavi monarkaren diktadura erortzen lagundu zutenak. Baina Iraultza Islamikoa ez da izan Irango herritarrak protagonista izan dituen indarkeriarik gabeko lehen ekintza multzoa. Lehenengoetako bi Tabakoaren Protestak (1891-1892) eta Iraultza Konstituzionala (1906-1911) izan ziren. Bi kasu horietan, tabakoaren aurkako boikota, bazarretako grebak eta meskitetako eserialdiak Irango herriak erabili zituen indarkeriarik gabeko erresistentzia zibileko teknikak dira. Tabakoaren Protesten kasuan, Qajar dinastiak Britaniar Inperioari eman nahi zion tabako-salmentaren monopolioaren aurka borrokatu ziren herritarrak; Iraultza Konstituzionalarenean, aukeratutako lehen parlamentua sortzeko. Hori esanda, oso zaila da liburuen bidez Irango emakumeek historian izandako parte hartzea ezagutzea. Badakigu han egon

Irango emakumeak subjektu pasiboak dira iruditeria horretan, 1979tik eskubideak sistematikoki galdu dituztenak. Kontutan hartu gabe, adibidez, herrialdeko mugimendu feministaren rol aktiboa

zirela borrokan, beren kideekin kalean edo espazio pribatuan. Baina ia ezinezkoa da subjektu aktibo gisa agertzen dituen kontakizunik aurkitzea.

Ez dira Irango emakumeek ikusezintasuna jasan duten aldi bakarrak herrialdearen historia egitean –ordea, Planetaren luze-zabalean erreproduzitu eta sistematizatu den fenomeno da–. Ikusezintasun horrek emakume

irandarren mendealdeko iruditeria *mainstream*-a sustatzen du. Irango emakumeak subjektu pasiboak dira iruditeria horretan, 1979tik eskubideak sistematikoki galdu dituztenak. Kontutan hartu gabe, adibidez, herrialdeko mugimendu feministaren rol aktiboa, mende bat baino gehiagoko historia duena eta diasporan ere jarraipena duena. Irango feminismoaren borroka nagusietako bat Yek Milyun Emzā barā-ye Laghv-e Qavānin-e Tab'iz Āmiz (Milioi bat Sinadura Kanpaina) mugimendua da. 2006an sortu zen, eta emakumeak bigarren mailako herritarrak izatea eragiten duten legeak erreformatzea du helburu nagusi. Ibilbide ezberdinetako emakumeak biltzen dira bertan: feminista islamiarrak, laikoak eta pragmatikoak. My Stealthy Freedom (Nire askatasun klandestino) eta White Wednesdays (Asteazken zuriak) diasporan sortutako mugimenduak adibide berriago batzuk dira. Iran barruko eta diasporako feministen ekintzak eza-gutzeak emakumearen subjektu pasibo izaera deseraikitzen laguntzen digu. ●

 **ARGIA**

ZURE JENDEA
HEDABIDEAK
IRAGARKIA



Jarri zure
publizitatea
hemen!

publiz@argia.eus
943 37 15 45
argia.eus/tarifak

Hitzetik jostera



AITZIBER JIMENEZ DE ABERASTURI
KAZETARIA

silpean heldu den mehatxu bat, bidetik gurutzatu duen oro komeni izan zaion moduan moldatu duena. Guztion ahoan sartu dena eta euskal jendarteak men egin diona berekin dakarrenari erreparatu gabe. *Running, spinning* eta *footing* itxuran heldu zen lehenekoz, eta guk normalizat jo genuen. Joerak influencer konplexuaren forman jarraitu zuen follower, crush eta *outfit*-ei buruz hitz egiten hasi ginenean. Ehunka forma hartu ditu geroztik, baina, konturatu garenerako, beste behin ere, eskuetatik ihes egin digu. Gaur, *Bilbao Exhibition Center*-era goaz eta, besteak beste, *Humanity at Music* ekitaldia antolatu zuten “sustraietan errotuta kultura indartzeko”. Argi, euskara izan da lehen kaltetua, behin berea zen tokia hartzen hasi baitzaio ingelesa, eta orain badirudi kontuz ibili beharko garela las-ter Basque-z hitz egiten hasiko ez ote garen.

Aldiz, haratago doa arazoa, eta joera horrek badauka are arrisku-
tsuagoa den alderdi bat. Begi bistakoa da gure komunikazio-tresna nagusia menderatzen hasi dela, baina apunte hori ere kezkarriagoa izan liteke, lengoia pertsonon mundu ikuskera eraikitze-ko erreminta nagusia dela gaineratuko bagenu. Hizkuntzatik hizkerara doan gaia da hau, hitz sinpleetatik balioetara jauzi egiten duena.

Azken hitz bonbardaketa eredu, betidanik ‘ebaluazio’ deitu izan diogunari *feedback* esaten zaio orain, “ponpoxoagoa” delakoan. *Pitching* eta *speech* hitzak gero eta ohikoagoak ditugu, guk berez-



“Afalorduko hitzortua”

korik izango ez bagenu bezala. *Timing* kontzeptua azkar zabaldu da, presaz, gero eta azkarragoak izan behar garela ahaztu ez dezagun. *Design thinking*-a mehatxari aurkeztu zaigu ere bai, eta arazoen aurrean jarraibidea pausoz pauso argitzen digu, produktiboagoak izan gaiten eta “ahal den azkarren irtenbide berritzaileak” sor ditzagun.

Kontzeptu eta balioz beteta heldu da azken joera, aspalditik hor egon direnak baina gero eta egitura indartuagoei forma ematen dietenak. Hitz ponpoxoak jaso ditugu, baina ez debalde. Izan ere, guk ez dugu soilik hitz eta esaldiekin

hitz egiten, areago, hitz eta esaldiekin pentsatzen dugu, eta lengoaiaren bitartez eraikitzen ditugu eskema sozialak gure prozesu kognitiboetan. Alegia, hizkera eta kontzeptuek inguruko errealitatea eraikitzen dutela interpretazio, arau eta balioen eskutik. Pertzepzio eta motibazio konkretuak nagusitzen dituzte, eta, anglizismoen azken bolada kasu, lehiakortasuna, presa eta epe laburrerako etekinak etxekotu dituzte. Aldiz, prozesu hori ezaguna zaigu. Orain, ekintzaitza azkarraren ideia zabaltzen ari da termino horien eskutik, etorkizun hurbila helburu, baina aspalditik garatzen ari diren egitura sozio-historikoen beste forma bat besterik ez dira, logika berdi-nei eutsita baina gero eta indartsuago, gero eta harrapariago. Gero eta uniformeago, gero eta zapaltzaileago. Eta, besteak beste, hizkuntza izan da horren albo kalteak jasan dituen lehena. Ez halabeharrez, hizkera baita hein handi batean logika horien sortzaile.

Orain, nola heldu garen honaino galdegin diezaiokegu gure buruari. Nola heldu garen ingelesaren erabilera go-raipatzera, zer baztertu dugun, eta zer errealitate ari garen eraikitzen ahoz aho normalizatzen ditugun kontzeptuekin. Izan ere, askok erakargarritzat dituzte ingeles hitzak, *cool*-a omen da haien ahoan, *trendy*-a akaso; haatik, agonia eta konplexu hutsa ez ote den galdegin diezaiekegu ere bai. Ez ote ari garen kapitalismo eta kolonialismoaren forma berri horien aurrean itsu-itsuan makurtzen. ●

Zahartzea, sexualitatea, maskulinitatea

GALDERAK, GALERAK ETA PLAZERAK

59 eta 85 urteko adin tartean dauden lau gizon batu ditugu mahaiaren bueltan, gorputzaren zahartzeaz eta horrek sexualitatea eta maskulinitatea ulertu zein praktikatzeko moduetan duen eraginaz kalakan. "Apenas pentsatu edo hitz egin dudan horretaz, ez dakit inongo ekarpenik egin dezakedan", izan da lauen hasierako erantzuna solasaldirako proposamena jasotzean. Hortik lehen egiaztapena: ez dugu gai horietaz hitz egiten; hitz egite soila bada ekarpena, hortaz. Gorputzaren gainbehera bizitzeko moduak, gizontasunaren mandatuekin ezin konplitzeak dakartzan kalteak eta onurak, zakilaren bilakaera fisikoa eta zakilzentrismoan dituen ondorioak... Luze bezain laburregi joan zaigu solasaldia.

Zenbat gorputz, buru, aburu eta adin, hainbat bizipen zahartzeaz, sexualitateaz eta maskulinitateaz. Ez murgildu orriotan beraz inoren ez ezeren eredurik aurkitzeko asmoz, irakurle; izatekotan, eredu hegemonikoak auzitan jartzeko izan daitezke hurrengo lerroak baliagarri. Jokinek 71 urte beteko ditu aurten (erreportajeko izen guztiak asmatuak dira). Zahartzearen kontzientzia hartzea gorputzarekin eta enpleguarekin lotu du nagusiki: "Irakaslea nintzen, beti zutik egoten nintzen, mugitzen, eta azken urteetan nabaritzen nuen, esaterako, gehiago eseri beharra nuela". Baina "buruarekin" ere lotu du zahartzaroa, fisikoaz bestelako neke batekin, ilusio batzuk itzaltzearekin: "Garai batean pentsatzen nuen dena irauliko genuela, gero konturatzen zara zure ekarpena txikia izan dela... ez bada lortu nahi nuenaren aurkakoa elikatu dudala", dio irribarre ironikoa marraztuz.

Xabierrek 85ak egin ditu urtea has-tearekin. "Ilea jausi zait, betaurrekoak behar ditut ikusteko, bilera batera joan eta, *Kristo*, aparatua behar entzuteko, usaimena galdu dut neurri batean". Bere zahartzea gaitasun intelektual eta fisikoen galera prozesu bezala deskribatu du. "Sentitzen dut iraganean nahi nuena egiteko mugarik ez nuela", dio, zerrendatuz bidaia luzeak, mendi



tontor altuak, irakurketa edo idatzi mamitsuak, aldizkako bakardade une bilatuak. "Gaur ez naiz kapaz". Xabierrek "nahi zuena" egiten zuen garai hura ez dago gaztetasunari lotua, Kepak eta Luisek duten adinaren bueltan egindakoak dira eman dituen adibideetako batzuk.

Kepak 61 urte ditu, bere hitzek gogoratzen digute gorputz guztien bilakaerak ez duela zertan berdina izan: "Zaila egiten zait zahartzearen esperientziaz hitz egitea, azken 20 urteetan fisikoki hobeto sentitu naizelako aurreko garaietan bai-



no". Gaztetan oso bizitza "desordenatua" eraman zuen, droga kontsumo handiak tarteko, buru-gorputza nabarmen kalteztaraino, baina lortu zuen egoerari gaina hartzea 30 urteren inguruan. "Ilea urdintzen doakit, bai, zimurrak agertzen, erresistentzia gutxiago dut... presente dut nagusia naizela, baina fisikoki ez dut nabaritzen hainbeste".

Luisek 59 urte ditu, fisikoki ez da 10 urte lehenago baina okerrago sentitzen. "Egia bada ere frontoia orduan utzi nuela". Sexu kontuetan salbu -aurrerago jorratuko duguna-, aldaketa handiena militantziaren esparruan ari da bizitzen.

Protagonismo handiagoa izatera ohituta, azken urteetan "bigarren lerrora" pasatzea erabaki du gazteekin konpartitzen dituen espazio eta borroketan. Erabaki politikoa da, ez muga fisikoei loturikoa. Adinak emandako esperientziari esker azterketa politikoak egiteko inoiz baino gaitasun handiagoa duela uste du, baina baita ere talde batzuetan hartzen duen rola kaltegarria dela aldi berean.

ZAHARTZEAREN ABENTURAK ETA DESBENTURAK

Gazte mantentzea da oro har agindu garrakide garrantzitsuenetakoa gure jen-

dartean; gorputz indartsu eta aktiboak eskatzen ditu maskulinitate eredu hegemonikoak Jokinek barneratuak izan ditu mandatuok garai batean. "Gaztetasunari gorazarre egiten zaio, eta kristoren beldurra izan nion hori galtzeari. 'Ni ez naiz hain zaharra' zioen buruaren eta gorputzaren arteko gatazka bizi nuen". Bazterketaren mehatxua ere sentitu zuen: "Zahartzen zarenean jendartetik baztertzen zaituzte, baita arlo politikoan ere. Militantzia, enplegua... zer toki dugu hemen zahartxoek?". Etorri zitekeenaren beldur horrekin kontrastean, heldu ahal normaltasunez ari da "mugak ikusten

eta egokitzen". Lehenago egiten zituen gauza berak egiten jarraitzen du, "baina beste erritmo batean".

Antzekotasunik badu Luisen bizi-penak. Distantziatik 60ei bestela begiratzen ziela dio, baina hurbildu ahala normaltasun osoz bizi dituela. "10 urte nituenean 'Bua, 20 urte izateak izugarria izan behar du!' pentsatzen nuen bezala da. Gero 20ak heldu eta, tira, ez ziren hainbesterako ere". Buru mugimenduekin baika entzuten diote Kepak eta Jokinek, bizipenarekin konektatuz. Zahartzea, salbuespenak salbuespen, ez baita egoera batetik bestera instant batean ematen den saltoa, egunerokoan garatzen den prozesu mantsoa baizik. Ospatu ere egiten du Luisek: "Hau al da 60 urte izatea? Txollo bat da! Egia da ere gaur egungo 60ak ez direla iraganekoak".

Presioa bere barnean ez, baina kua-drillan sentitu izan du Luisek, tarteka ateratzen duen hizketagaia bazter dezan: "Esaten didate zahartzeaz ez hitz egiteko, 'hori zaharra zarela onartzea da'. Nik uste beldurra dela. Malda behe-ra hasi dugu, ez da ezer gertatzen, baina kontziente izan behar dugu".

Autopertzepzio desitxuratuaren arriskua seinalatu du Luisek, solaskideen algarak piztuz: "Pertsona bat nire adinekoa dela jakin eta askotan pentsatu dut, ostia, ni horrelakoa naiz? Agian nire buruari gezurretan ari natzaio...". Pertzepzio hori doitzeko kanpoko begirada lagungarria dela dio. Banitatearekin lotu du Xabierrek autopertzepzioaren deformatzea, Luisek botatako hariari helduz. Askotan jasotzen du nolabaiteko miresmena 85 urte izateko "oso ondo" dagoelako, eta, horrelakoetan, dio, "ahaztu egiten dut nor naizen, naizena baino gehiago naizela pentsatzen dut. Ondoren ohartarazten diot nire buruari txapa-pintura kontua dela". Barre orokortuak berriz ere.

Segurtasuna galdu du Xabierrek zahartu ahala. Etxean geratzeko joera handiagoa du, edo lehen bilatzen zuen tartekako bakardadeari ihes egitekoa, egoneza eta asperdura nagusitzen zaizkiolako. Ezbeharrek arrasto sakonagoa uzten diote. Badira urte batzuk konortea galdu zuela bizpahiru alditan, hilabete-tan medikuek ez zuten zergatia aurkitu, eta argitu bitartean etxean geratu edo "irtetera arriskatu" erabaki behar izan zuen. Arriskatzea erabaki zuen, onerako izan zen, "baina bizipenak markatu egin ninduen".

Heriotza du kezka handien Kepak. "Gero eta gehiago pentsatzen dut heriotzean". Baina ez larritasunetik, azken urteetan lagun minak hil bazaizkio ere bat-batean; alderantziz: "Edozein egunetan bagoaz, aprobetxatu behar da". Heriotzaren aukera presente du Luisek ere, eta ez dio beldurrik pizten: "Bost axola". Xabierri garai batean hiltzeak sortzen zion ardura; egun hiltzeak ez, baina hiltzeko moduak bai. Bizi testamentua egiteko aukera egoteak edo Espainiako Kongresuan onartu berri duten eutanasiaren legeak mamuetako batzuk uxatzen lagundu diote.

“Zahartzearekin
gainetik zama
bat kendu dudala
sentitzen dut, ez dut
inorekin lehiatu behar”

BIGUNTZEAREN ONURAK

Maskulinitate hegemonikoa lehiakorra da, bereziki gizonen artean. Lehiakortasun horren anai dira fisikoki eta mentalki "gai" izatearen mandatu orokorra eta, batez ere, hori etengabe demostratu beharra. Zer egin horrekin guztiarekin gaitasunak galdu edo apaldu ahala? Maskulinitatearen piramidean norbere kopapena mantentzen ahalegindu norbere burua behartuz, paparra gehiago ateraz edo ezina eta frustrazioa ondokoei ordainaraziz? Isilean eta bakardadean sufritu? Edo galera askabide bihurtu, lehiatzearen zamak eta zauriak astintzeko baliatuz?

"Nik sentitu dut lehia hori, batez ere gazte garaian konpetentzia handia genuen", dio Jokinek. Ez da arantzarik gabeko prozesua izan, baina lehiakortasuna gaitzeak lasaitasuna ekarri dio: "Zahartzearekin gainetik zama bat kendu dudala sentitzen dut, ez dut inorekin lehiatu behar". Xabierrek bide beretik jarraitu du: "Handi plantak utzi eta askatasuna duzu ez teoria politikoaren arabera azaltzeko, baizik eta barrutik, sentitzen duzunetik. Bentaja da, baina seinale da gure gizontasuna hautsi dela". Jendearekin egoteko eta entzuteko gaitasuna irabazi duelakoan dago Xabier, bereziki emakumeekin. "Eta negar egitekoa [begiak


urtu zaizkio hunkituta, eta pausa egin du jarraitu aurretik], ulertua edo onartua sentitzen naizenean".

Kepak eta Luisek diote maskulinitate eredu hegemonikoaren eta lehiakortasunaren presiorik ez dutela sentitzen: oso gaztetatik emakume feministen ondoan bizitzeko zorteari egotzi dio Luisek, bere ingurune marikari Kepak. Bai sumatzen dutela hunkitzeko joera handiagoa zahartu ahala: "Hunkitu behar ez ninduketen gauzeekin ere, film tonto batekin esaterako", dio Luisek; "Nik ere bai", Kepak barrez. Luisek adinarekin haserrekoia bihurtzeko beldurra zuen, eta kontrakoa gertatzen ari zaiola dio. "Lagunek ere esaten didate lasaia nagoela, ez dakit testosterona kontua den".

"Orduan, esango zenukete adinak modu batera edo bestera bigundu egiten duela?", galdera mahaikideei. Baiezko orokortuak galdera berriak iradokitzen ditu: Eta adinarekin bigundu ordez aurretik gogortuko ez bagina? Zenbat onura lekarzkiguke gizonoi? Eta, batez ere, zenbat onura emakumei* eta munduari? Astirik ez, ordea, hari horretatik tiraka jarraitzeko. Matazaren hari-mutur berri bati heldu behar diogu.

SEXUALITATEA

"Horretan bai ekarri didala adinak aldaketa izugarria", dio Luisek, azken bospasei urtetan bizitzen ari dena azalduz: "Heldu da momentu bat non gustuko ditudan gorputzak ez diren nire adinari dagozkionak. Ni baino 10, 15, 20 urte guxtiagokoentzat ez naiz erakargarria, eta alderantziz, gustuko nautenak ez zaizkit erakargarri egiten. 20 urterekin 40koak nituen gustuko, baita orain ere". Harreman heterosexual irekiak izan ditu beti, garai askotan hainbat batera eta urtetan luzatu direnak. Aurretik ezagutu dituen pertsonekin izan ohi ditu sexu harremanak, gutxitan "gau bateko txortaldiak". Gazteago den emakume bati berarekiko interesa sumatzen badio, bestelako kezka bat dator: "Zer espero dezake nigandik 'gazte' batek? Pentsatzen hasi eta beldurtzen naiz. Ziurtasuna... buf, nik ez dut hori nahi". Harremanak bilatzeko orduan naturaltasunez portatzea eragotzen dion harresi bat altxatu du Luisek. Sexu harreman berririk ez du sortu aspaldian, eta arrazoi ezberdinak tarteko aspaldiko batzuk galdu ditu. "Gutxitzen-gutxitzen, azken boladan desagertu arte. Sexualitatea nire buruarekin dut orain gehiago, masturbazioa jo dut, eta pornografiara".



Armairutik 30 urterekin irten zen Kepa. Ordura arte “emakumeak gustuko izan beharraren presioa” sufritu bazuen, 40 eta 60 urteen artean gozatu du gehien sexualitateaz. Hogei urte baino gehiago dira bikotearekin bizi dela, baina harreman sexual ugari izan du hortik kanpo, askotan interneteko aplikazioak erabilita hitzorduak egiteko. “Egun bateko harremanak niretzako bikainak dira, tipoa nor den ezagutu gabe ere”. Gaztetan gizon helduak zituen gustuko soilik. “Orain ez dut adina ezberdintzen gustatzeko orduan. 20 urte gazteagoak gustatu ahal zaizkit, baita ni baino nagusiagoak ere”. Azken bizpahiru urtetan desio gutxiago izan du oro har, nagiago sumatzen du bere burua, baina adinarekin baino gehiago bestelako bizitza aldaketekin lotu du. “Nik uste dut soltatzen banaiz berriz ere *golfismora* bueltatuko nintza-

tekeela”. Luisek eten dio hitza: “Edo ez. Nik berdina pentsatzen nuen nitaz, baina zu entzunda, igual adinak badu zerikusirik”. Eta Kepak hartu du berriz ere: “Baina nire bikotea ni baino nagusiagoa da, eta nik baino desio handiagoa du”.

Urduri egon da azken egunetan Xabier, erreportaje honetarako sexualitateaz hitz egin behar zuela-eta. Heterosexual monogamo bezala definitu du bere burua, “nahiz eta garai batean ez hain monogamo izan, eta une haiek apreziatzen ditut”. Milaka gizonen antzera munduan eta Euskal Herrian, seminarioan urteak eman zituen, eta eunuko batenarekin parekatu du bere burua garai hartan: “Gogoratzen dut nire baitara pentsatzea, ‘bekatu egin baino lehenago hill’, eta bekatu nagusia emakumeekin harremanak izatea zen”. Seminariotik irten eta urteetara izan zuen sexua lehen-

bizikoz pertsona batekin, baina Elizaren eta apaizen arrastoa fresko zegon oraindik ere. “Gozatzea galarazten zidan, sei hilabetez egon nintzen orgasmorik ezin eduki, apurtu nuen arte”.

Hamarkadetako bikote harremana mantentzen du Xabierrek egun ere. 64rekin erretiroa hartu eta urte gutxira prostata arazoekin hasi zen, zakilean eragiten ziona fisikoki. “Ez nuen berdina lortzen. Noizbehinka bai, posturak aldatuta, lasaiago arituta...”. Prostata medio medikuak Viagra errezetatu zion azkenerako, hori gabe zakila tentetzea ezinezko egingo zitzaioela eta. “Etxera eraman, eta bikoteak, ‘Zertarako hori? Utzi ezazu’. Joder, ba, orduan...”. Beti izan duen sententzia berretsi zion pasarteak; alegia, berak gozatzen zuela bikoteak baino gehiago bion arteko sexuan. Hausnarketa ondoren etorri zaio: “Arrakala soldatan, arrakala

erretiroan... eta ohean ere, batzuk asko gozatu eta beste batzuek gutxi". Ez zuen uste arrakala hain handia zenik halere, dio Orgasmo Arrakala liburuxkaren egile Paola Damonti aipatuz. Emakumeen %80k koitoarekin orgasmorik ez duela jakiteak harrituta, ARGIAK egileari egin zion elkarrizketa gazteleraratu eta gizonetzko lagun adinkideei bidali zien.

"Ni aspaldi hasi nintzen larritasun txiki bat bizitzen, ez konplitzeko beldurra, mamu bat: beteko dut niregandik espero dena?", dio Jokinek. Gizonongandik "espero" den hori konplitzea da, bere esanetan, eta "konplitzea", aldiz, oso gauza zehatza: "Koitoa egitea, zakila tente mantentzea eta zure bikotekidea gozaraztea". Gizonen arteko lehiakortasunarekin nola, sexualki 'konplitzearekin' ere zahartzeak zama arindu dio. "Pixkana bazoaz praktikak aldatzen, ikasten duzu posible dela beste harreman mota batzuk izatea, *zakilzentristmotik* aparte, ferekak, beste gorputz hizkuntza bat, eta posible dela horrekin ere satisfazioa lortzea. Zahartzaroak la-saitasun puntu hori eman dit, ez dut ejentziarekin bete behar". Xabierrek esandakora bueltatuz, seminariotik pasatu ez diren bere adineko gizonen ere errepresio handia sufritu dutela argitu du. Esaterako, neskekin gela lehenbizikoz unibertsitatean konpartitu zuen. "Bat-batean neskekin batera, eta ez dakizu non sartu ere, beldurra...".

ZAKILZENTRISMOTIK HARAGO

60 urteak arte egunero-egunero egin zuten txortan, egin zuten koitoa, Luisen gurasoek. Bere amak ez daki zer den orgasmo bat. Egunero-egunero egin behar horren zergatiaz galdetzean, erantzun zion amak semeari: "Horrela behar zuen". Koitoa da sexu harreman heteropatriarkalen zentroa, eta zentroaren zentroa zakila -zakil tentea noski, gizontasuna-

ren neurria ere badena-. Zer gertatzen da zakilaren tentetasunarekin eta bere zentralitatearekin zahartzean?

Erekziorik eta sexu irrikarik ez du egun Xabierrek. "Ez dut frustraziorik harreman sexualik ez izateagatik, eta lasaitasuna ematen dit pentsatzeak bikoteak ere ez duela behar". Aldiz, Luisi, Jokini eta Kepari libidoak edo desioak ez die behera egin. Gero eta gehiago burutik abiatzen den desioa da, ordea, eta gorputzean bestelako intentsitate batekin gorputzen doana.

“Noski ez zaidala tentetzen lehen bezala, baina ez dut kezkarik bizi izan, gorputzaren beste atal batzuekin gozamen handia lortzen dut”

Gutxi gorabehera 50 urtetatik aurrera hasi zen Luis aldaketa nabaritzen: erekzioak urriagoak eta ahulagoak ditu -"sexua izateko orduan, zein, demagun, kaletik ibiltzen"-; orgasmora heltzeko denbora gehiago behar du; "sutan jartzen ninduten posturak edo egoerak beste modu batean bizi ditut". Umorez laburbiltzen du desioa piztu dion gorputz baten aurrean duen erreakzioa: "Erekzio mentala bai, baina ez fisikoa".

Antzera hitz egiten du Jokinek. 55 urte ingururekin hasi zen erekzioen behe-rakada igartzen. "Oraindik baditut, goizean batez ere, baina gero eta gehiago kostatzen zait eta ez da berdina. Buruan desirak aktibo jarraitzen du, baina fisikoki ikusten dut ezin dudala", dio egungo 71rekin.

Erekzioa indar gutxiagokoa izanagatik orgasmoa berdina lortzen du Kepak. Gaia-ri hausnarketa gutxi dedikatu dio, eta ez dirudi kasualitatea denik: "Noski ez zaidala tentetzen lehen bezala, baina ez dut kezkarik bizi izan, gorputzaren beste atal batzuekin gozamen handia lortzen dut". Zakil tentearen eta maskulinitatearen presiorik ez du bizi. "Nire bikotearekin ez dugu lehiarik ea nor den gizonago, edo ezer erakutsi beharrik. Eta aparteko

harreman sexualetan, aurrez oso zehaztua eta adostua dugu bakoitzak zer nahi duen". Nahi eta adosten dituen praktikatetik, inor penetratzearena ez dago lehentasunen artean. Bada homoseksualitate eredu oso maskulinizatu bat, gimnasioan landutako gorputzen gorazarre egiten duena, erabat sexualizatua eta zakila erdian duena. "Bai, noski, baina ez da nirea, ez nire ingurunearena".

Zakilaren gainbeherak bestelako aldaketak ekarri dizkie gure solaskideei. Xabierrek dio zahartzearekin adiskidetasuna emakumeekin fisikoki ezberdina dela: "Urte hauetara helduta, afektibitate fisiko handiagoa baimentzen diogu elkarri. Lehenago ez bezala, nik uste". Eskertzen duen konfiantza keinu bezala bizi du aldaketa. Lehenago irakurri diogu Jokini nola garatu duen zakilzentristmotik haragoko beste gorputz hizkuntza bat "konplitzeko" zailtasunak hastean.

Xabierrek ere badu sentipena sexu harremanak urritzean laztanak ugaritu zituela edo maitasuna adierazteko joera handiagoa garatu zuela. "Bestea falta delako? Hutsune hori bete nahi duzulako? Ez dakit", bota du galdera. Eta Luisek airean harrapatu, galderari susmoa gehituz: "Uste dut nire buruari tranpa egingo niokeela esanez, 'sexua bestelakoa izan daitekeela deskubritu dut'. Elkarrekin lortzen genuen gozamina ez dugu lortzen orain, ez gara horren erakargarriak elkarrentzako, gauzak aldatzen dira. Igual horregatik hartu dezake-te pisu gehiago laztanek, maitasunak... Izan daiteke oreka hori aldatzea, baina ez ezer ikasi dugulako".

HOBETO BIZI, INOREN KALTETAN

Bada hizketan jarraitzeko girorik mahaian, baina etxeratze aginduak nor bere herrira bidean jartzera behartu gaitu. Hasierako hausnarketa berak ixten du saioa: ez dugu gauza hauetaz hitz egiten, eta egin beharko litzateke. Gehiago konpartitu beharko genituzke gizonok maskulinitateari, zahartzeari eta sexualitateari loturiko bizipenak, hirurak harremanetan zein bakoitza bere aldetik, gure buruak eta moduak auzitan jarritz. Konpartitu egoerak, beldurrak, zalantzak, pozak eta minak, harrotasunak eta lotsak, teoriak eta praktikak. Sufrimenduak gutxitu eta gozamenak areagotzeko; sexualitatea, maskulinitatea eta mundua bera zakilaren arabera ez neurtzeko; elkar bigunduz gure baitan hobeto bizitzeko, ongizate hori inoren bizkar gainean eraiki gabe. ●



Zatitutako herria osatzeko grafitiak

PERU IPARRAGIRRE  DANI BLANCO

Mendiz eta basoz inguratutako herri txikia da Fanzara (Castelló, Valentzia, Herrialde Katalanak). 273 biztanle ditu egun, gehienak adinekoak. 2004an PP agintean zuen Udalak herriaren lurretan gai arriskutsuen zabortege bat jartzeko plana onartu zuen, herriko ekonomia bultzatu eta lanpostuak sortzeko, omen. Ekologikoki bideraezina zen proiektua ordea, besteak beste, kokagunearen azpian zegoen akuiferoa kutsatzeko arriskua baitzegoen. Ondorioz, zabortege proiektuaren aurka zeuden herritarrek Vertedero Sustancias Peligrosas No (Gai arriskutsuen zabortegeari ez) plataforma eratu zuten. Egindako borrokak fruituak eman zituen eta 2007an Valentziako Erkidego Lurralde Kontseilaritzak zabortegea eraiki behar zuten lur-eremua birkalifikatzea eta bertan gai arriskutsuak

metatzea debekatu zuen, ingurumenarekiko eragina kaltegarria izango zela argudiatuta.

Ordurako, ordea, biztanleen arteko harremanak gaiztotuta zeuden. Zabortegearen aldeko eta aurkako, herritarrek zatituta eta etsaituta zeuden. Kasu batzuetan, familia bereko eta koadriletako kideek elkarrekin hitz egiteari utzi zioten eta behialako elkarbizitza deseginda zegoen. 2011ko udal hauteskundeetan zabortegearen aurkako plataforman parte hartutako herritarren hautagaitzak irabazi zituen bozak. Zabortegearen aurkako proiektua behin-betiko atzera botata, herritarren arteko harremanak osatzeko zerbait egin behar zela erabaki zuten.

Horretarako sortu zuten Arte Urbanoaren Museo Bukatugabea (MIAU, gaztelaniazko siglekin). Elkarbizitza artearen bitartez sustatzea da proiektuaren helburua. Herritarrek artistak euren

etxeetan hartzen dituzte urtero uztailean egiten den jaialdian, eta euren etxeetako hormetan hartzen du bizia arteak. Aldi berean, herritarren arteko bitartekariak dira artistak. Jendea elkarrekin egoteko, hitz egiteko, zerbait partekatzeko aukera eta aitzakia paregabea da. 2014an jarri zituzten martxan museoa eta jaialdia eta ordutik hona 150 interbentzio egin dituzte. Herri txiki bateko hormetako museoa grafitigileen mundu mailako erreferentzia bilakatu da. Gainera, dantza emanaldiak, kontzertuak, argazki-erakusketak, hitzaldiak eta proiektzioak ere egiten dituzte urteroko festibalean. Fanzarako biztanleek kudeatzen dute proiektua eta beraiek egiten dute lan, boluntarioki, aurrera atera dadin. Balio izan du herritarren arteko etsaitasunak baretzeko eta artearen bidez komunitatea sendotzeko. Urte osoan bisita daiteke etengabe eraldatzen ari den museoa. ●













Ikasleak sentsibilizatuta daude ingurumen gaietan; pauso bat gehiago eman behar dugu: sumindu

Jose Manuel Gutierrez

Ikuspegi soziala ere aintzat hartuko duen Ingurumen hezkuntzaren defendatzailea da Jose Manuel Gutierrez. Urtetan arlo horretan irakasle aritua, 2005etik Ingurumen hezkuntzako aholkulari pedagogiko dabil Bilboko Ingurugelan. Gizakiok inguruarekin harremantzeko dugun moduaz, natura defizitaz, Greta Thunberg fenomenoaz eta ikasleen artean aktibismoa bultzatu beharraz mintzatu zaigu, bakarka egin ditzakegun “ekokeinuak” baino eraginkorragoa delako “taldean eta elkarrekin sozialki eragitea”.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  HODEI TORRES

Gaur egun, filosofia berdea lehen lerroan dagoela dirudi, baina zenbat du mamirik gabeko aldarrikapen hutsetik? Euskal Herriko ikastetxeetan zein da ingurumenak benetan duen lekua?

Pertzepzio orokorra da filosofia berdea modan dagoela, baina ez dut uste: klima aldaketaren aurka, plastikoen inguruan... mugimendua badago duela urte batzuetatik, baina gero hori ez da bototan islatzen eta filosofia hori benetan garatu nahi badugu bestelako planteamendu politikoa behar dugu. Enpresek erabiltzen dute ekologia balio gehigarri gisa, produktuak hobeto saltzeko eta ezkutuan zikintzen dutena garbitzeko, baina horren guztiaren atzean kapitalismo berdea dago: kapitalismoa eta berdea oximoronak dira, esanahi kontrajarria dute, eta ez da hirugarren zentzurik bultzatzen. Kapitalismoak ez baditu planetaren mugak kontuan hartzen, ezin du berdea izan.

Hezkuntzak berriz, gurean, aspalditik lotura zuzena izan du naturarekin eta

hori ikastetxeetan islatu da. 1970eko hamarkadan irteerak egiteko gogoia erakutsi zuen hainbat irakaslek, 80koan ekosistemei-eta loturiko proiektuak egiten hasi ziren, eskolako lehenengo baratzak abiatu zituzten... eta areagotzen joan da interes hori. Mende honetan Agenda 21ek eman dio bultzada ingurumen hezkuntzari.

Ingurumen hezkuntza baino gehiago, Ingurumen hezkuntza ekosoziala aldarrikatzen duzu, iraunkortasunerantzko hezkuntza.

Hitzen eta terminoen debatea oso gustuko dut; nik ingurumen hezkuntza aldarrikatzen dut, baina gizartean ingurumen kontzeptua ekologiarekin eta naturarekin bakarrik lotu ohi da, eta albo batera uzten da esparru sozialarekin duen lotura. Hori konpondu nahian, Unescok berak proposatu zuen izen aldaketa: garapen iraunkorrerako hezkuntza. Baina garapen iraunkorraz hitz egitea da kapitalismoaren ikuspegi bat bultzatzea, garapen jakin batez ari den

heinean. Nahiago dut iraunkortasunerantzko hezkuntzaz aritu, edo hezkuntza ekosozialaz, hezkuntza ekosoziala delako behar dugun trantsizio prozesua eragin dezakeena (trantsizio energetikoa, ekonomikoa, soziala, zaintzarena...).

Garapen iraunkorrek mahai gainean jartzen duen hirukia da natura, ekonomia eta gizartea, eta eskema hori erabiltzea da ekonomiari pisu handiagoa ematea, baina mundua ez da banatzen maila berean jartzen dituzten hiru bloke horietan, errealitatea da biosfera dagoela, biosfera barruan gizartea eta gizartearen barruan ekonomia, zaintzak, eskubiak, harremanak... Matrioxka moduan. Hezkuntza ekosozialean bizitzeko da zentrotia, eta aurrera eramaten den edozein prozesu zein eragin duen aztertzeko bi printzipio hartzen ditugu aintzat: eko-dependenteak eta interdependenteak garela. Hortaz, batetik gure behar eta interesak asetzeko naturatik hartzen duguna orekatu behar dugu biosferaren zirkloetara –bestela akabo biosfera eta ondorioz akabo baita ere gu–, eta bestetik

presente izan behar dugu gainerako gizakien laguntza ezinbestekoa zaigula. Bi printzipio hauek hezkuntzara ekartzea eta arazo ekosozialak eskolan lantzea da lehenengo urratsa, gero kontzientzia hartzeko eta azken buruan ikasleak ekintza eraldatzaileetara bultzatzeko.

Hori da ingurumen hezkuntzaren helburua, ekintzara pasatzea?

Hori bera. Gure proiektuen bidez saiatzen gara bai eskola eta bai ingurua eraldatzen: ibaiak eta basoak garbitzen eta hobetzen, natur-gidak sortzen, agintariei aldaketak eskatzen...

Nabarmenduko zenukeen hezkuntza proiekturik?

Confint (Planeta Zaindu Dezagun nazioarteko biltzarra). Brasilen jaio zen eta gainerako herrialdeetara zabaldu da. Ikasleek eurek asanbladak antolatzen dituzte ikastetxeetan, gai baten inguruan ikertzen dute (klima aldaketari lotua, edo krisi ekosozialari, bioaniztasunari...), haien artean eztabaidatu

eta alternatibak proposatzen dituzte, eta hezkuntza ekosozialaren dimentsio politikoa ere barneratzen dute. Ikastetxean egiten dituzte proposamenak, bai-

“ ”

***Garapen iraunkorraz
hitz egitea da
kapitalismoaren
ikuspegi bat bultzatzea.
Hezkuntza ekosoziala
da behar dugun
trantsizio prozesua
eragin dezakeena***

na agintariei ere luzatzen diete eskaera: “Gu prest gaude hau egiteko; zuek?”. Busturiako Ekoetxean esaterako, Euskal Confinta egiten dugu urtero.

Hezkuntza ekosozialaren dimentsio politikoa aipatu duzu. Sistema ekosozialak ezinbestean antikapitalista izan behar duela barneratzeaz ari zara?

Politikaz ari naiz bere oinarritzko zentzuan: herritarrentzako baliagarria izatea. Antikapitalista? Tira, prozesua ongi eginez gero emaitza hori izango da, edo antikapitalismotik gertu ibiliko da, baina guk ez dugu aurre-baldintzarik jartzen: ikaslea ahalduntzea da gure zeregina, erakustea zer nolako gaitasuna duen gauzak eraldatzeko eta gizarteak zein aukera ematen dizkion horretarako, eta gero berak erabakiko du nola jokatu eta zein konpromiso hartu nahi dituen. Garraio publikoa autoa baino egokiagoa dela ondorioztatu dezake, baina non bizi den edo nora joan behar duen, agian autoaren aldeko apustua egingo du, eta agintariei eskaera luzatuko die behar bada, garraioa beste era batera antola dezaten... Horrelakoetarako mugimendu sozialetan sar zaitezke; guk hori bultzatzen dugu, aktibismoa.

NATURA DEFIZITA.

"Ikasleengan jada natura defizita nabaritzen dugu. Haurtzaroa naturatik bereizita igarotzen duenak nola zainduko du biosfera?"



Eta aktibismoa sustatzeko, zer da eraginkorragoa: gizakiok inguruarekin dugun harremana positiboan lantzea (zer egin dezakegun gauzak aldatzeko) ala dugun harreman zapaltzailea agerian jarri, kontzientziak astintzeko?

Biak dira oinarritzekoak. Arazo ekosozialen jatorri eta ondorioak landu behar dira, baina hurrengo pausoa da azaltzea beti dagoela hori aldatzeko aukera, baita “ekokeinutik” harago ere. Nik bakarrik ekokeinuekin zerbait egin dezaket, baina inportanteagoa da taldean, elkarrekin, aktibismoaren bidez, sozialki eragitea.

Prozesu berriak zabaltzeaz gain, ezagutarazten diegu dagoeneko badi-rela martxan prozesuak aldaketaren bidean eta haiekin bat egin dezaketela. Esaterako, agroindustriaren aldean, tokiko elikagaien aldeko hautua egin dezaketela.

Agroindustriaren boterea handiagoa da, ordea. Zein da hezkuntzak duen potentziala eta indarra, eskolatik atera eta ikasleak kontrako norabidean jasotzen duen input andanaren aurrean eragiteko?

Hori da gakoa eta erronkarik zailetakoa. Eskolan bultzatu nahi dugu elkartasuna, kontsumo arduratsua, elikadura osasuntsua... eta kalera irteten bezain pronto aurkitzen dute lehiakortasuna, kontsumismoa, janari zaborra... Aldi berean, ordea, hori da ingurumen hezkuntzaren bihotza: testuinguru horri aurre egiteko existitzen da ingurumen hezkuntza. Gure lana da kontrako input horien guztien aurrean errealitatea ezagutzeko informazioa eskura jartzea; gizartean parte hartzeko, alternatibak proposatzeko eta martxan jartzeko aukera ahalbidetzea; sentsibilizatzea; eta gai batzuen aurrean sumintzeko gai izan daitezen lortzea. Azken finean, esango nuke gure ikasleak sentsibilizatuta badaudela gai ugariaren inguruan, informazio andana jasotzen dutelako natura zaindu beharraz, birziklatzeaz, plastikoa- ren kalteez... Pauso bat gehiago eman behar dugu: sumindu.

Kontzientzia hartzeko sumintzea da bidea, orduan?

Kontzientziatzea da ohartzea arazo bat dagoela, arazo horren parte naizela (nire jarreragatik, egiten dudana kon-

tsumoagatik, aisialdiagatik...) eta jabetzea irtenbidearen parte ere banaizela. Hiruko segida bat erabili ohi dugu guk: zer egin daiteke? Guk zer egin dezakegu? Zer egingo dugu?

Nola baloratzen duzu Greta Thunberg fenomeno?

Fenomeno baloratzen dut, kar, kar. Ekologismoak orain arte lortu ez duena lortu du neska horrek, apal-apal eta berehala: hainbat sektore elkartzea ekologismoaren bueltan. Hain juxtu, Greta fenomeno ezin da ulertu ingurumen hezkuntza barik, bere –eta beste Greta askoren– atzean dagoelako ingurumen hezkuntza: ikusi dute arazoaren eta irtenbidearen parte direla. Sare sozialek ere zerikusi handia dute honetan guztian. Gogoan dut 12 urteko kanadiar batek Rio de Janeiroko gailur batean Gretaren antzeko mezua bota zuela 1992an, baina ez zuen halako oihartzunik izan.

“ ”

***Arazoa etikoa da,
nola ulertzen dugun
gizakiok gure rola
munduan, zelan
harremantzen garen
naturarekin,
baina baita beste
gizakiekin ere***

Ikasleei galdetzen diet, ea zer iritzi duten Gretaz, eta gehien-gehienek bat egiten dute bere borrokarekin, ikastetxe askok ere planto edo aldarrikapenen bat egin zuen iaz klima aldaketaren kontra, eta beraz eragina izan du ikasleengan. Batzuek diote neoliberalismoak bultzaturiko fenomeno dela, ea nor dagoen Gretaren atzean eta zeinek jartzen duen dirua egiten dituenak egiteko... Baina niri txapela kentzeko modukoa iruditzen zait neska honek lortu duena eta fenomeno hau zaindu eta lagundu behar dugula uste dut.

Naturara edo behintzat kanpora ateratzen hasi dira eskola batzuk,

pandemia garaian leku itxiak saihesteko.

Apurka-apurka ari dira ateratzen, bai, baina nire pertzepzioa da oraindik beldurra eta ardura direla nagusi, eta ulergarria da, baina horrek ez du kentzen bultzatu behar dugula kanpora ateratzea. Apustua egiten duten ikastetxeetan, bete behar dituzten baldintza eta protokoloek ez dute laguntzen.

Ikasleengan jada natura defizita nabaritzen dugu. XXI. mendeak eskaini du etxe barruan hazten ari den lehen belaunaldia, digital natiboa, pantaila baten aurrean. Naturarekiko kontaktua urrun duen belaunaldia izan daiteke, eta beraz aurrekoak baino osasun arrisku handiagoak izan ditzakeena. Haurtzaroa naturatik bereizita igarotzen duenak nola ezagutu eta balioetsiko ditu izaki bizidunak, nola zainduko du biosfera? Ingurumen hezkuntza baliabide handia izan daiteke defizit horri erantzuteko, eta hala ere murrizketak jasaten ari gara.

Ingurumenak osasunean duen eraginaz kontzienteago egin gaitu COVID-19ak. Zerbaitetan aldatu ditu pandemiak etorkizuneko ingurumen hezkuntzaren gakoak?

Egia da eztabaida hori eman dela, baina lehengoa eta oraingoa etsai bera da. Dimentsio berriak hartu ditu, baina etsaia ez da aldatu, eta hortaz, ingurumen hezkuntzaren gakoak ere ez. Nazio Batuen Erakundeak bioaniztasunaren galerarekin lotu du pandemia, baina zenbat jende jarri du arreta horretan? Galera horri aurre egiteko zenbat lagun dago prest bere irabazteko bideak aldatzeko? Hazkunde ekonomikoaren aurka egotea ez da ulertzen oraindik, nahiz eta planeta finito batean gaudela errepikatu. Gizarte kontzienteago batek aukera gehiago dauka gauzak aldatzeko, eta hori da gure lana.

Zein da aldatu ez den etsai hori?

Antropozentrismoa. Arazoa etikoa da, nola ulertzen dugun gizakiok gure rola munduan, zelan harremantzen garen naturarekin, baina baita beste gizakiekin ere. Bi tresna erabiltzen ditu hain barneratuta dugun antropozentris- moak, bere boterea mantentzeko: kapitalismoa –mesede egiten dion sistema ekonomikoa delako– eta heteropatriarkatua –gizon zuri heldua piramidearen gailurrean mantentzen duen kontratu soziala delako–. ●

ZOZ sarea


Telekomunikazio-burujabetza Zumaian

Urteak dira zuntz optikoa Internet konexiorako inplementatu zela, baina operatzaile erraldoien interesak tarteko, teknologia hori ez da oraindik kalitate onean heldu Euskal Herriko hainbat txokotara. Gipuzkoako Urola bailaran arazo horri irtenbide komunitarioa topatu diote: ZOZ edo Zuntz Optikoa Zumaia delako sarea hedatzea. "Sare neutro, ireki, libre eta mankomunatua", sustatzaileen esanetan.

 MIKEL EIZAGIRRE

Duela gutxi abiatu da Zuntz Optikoa Zumaia (ZOZ) izeneko, operatzaile txikien, Udalaren eta Guifi-net fundazioaren arteko elkarlanean. Egistasmoak herrian zuntz optikoko azpiegitura publikoa ezartzea du helburu. Udal Gobernuaren esanetan, proiektuak zumaiarrei "zuntz optikoko sare neutro, ireki, libre eta mankomunatua" eskaintzea ahalbidetuko du. Sarea gai izango etxebizitza, saltoki, erakunde eta enpresa guztietara heltzeko da gainera, herriko edozein lekutan egonda ere; kanpoaldean dauden Oikia, Artadi eta Narrondo auzoak barne.

Urri hasieran abiatu zituzten zuntz optikoaren azpiegitura ezartzeko lanak, guneka eta era eskalatuan eraikitzeko aurreikuspenarekin. Prozesuak eta zortzi hilabete iraungo ditu guztira. Norabide horretan, itsasargirako bidea -zumaiarrentzat Paolbide izenez eza-gunagoa- eta Alde Zaharra izan dira berrikuntza jasotzen lehenak, bertan erabilgarri baitago jada. Azaroaren amaieran burutu ziren lehen kokaguneetako lanak, eta gaur-gaurkoz aurrera darrai hurrengo gunean.



Zuntza herri osoan zabaltzen den heinean, informazio xeheagoa helaraziko diete bizilagunei: “Ekitaldi birtualetarako gonbidapenen eta sareko operatzaileen zerbitzu-eskaintzen bidez”, azaldu du Zumaiako Udalak. Hala, eremu bakoitzean instalazioak gauzatzen ari diren momentuan, lanen nondik norakoak azalduko dizkiete biztanleei, zuzenean zein bizilagunen komunitateen eskutik.

HASTAPENAK

ZOZ sarearen proiektua 2018. urte amaieran hasi zen kontzeptualki garatzen, Herrialde Katalanetako Guifi-net fundazioaren telekomunikazio-azpiegitura berriak Urola bailaran zabaltzen hasi zirenean. Egitasmo horrek telekomunikazioen burujabetzan interesa zuten zenbait lagun bildu zituen Zumaiian, eta horiek, berriz, udalarekin harremanetan jarri ziren 2019an, herri-rako zituzten ideiak azaldu asmoz. “Zumaiian zuntz optikoko sare bat sortzea interesgarria izango zela azaldu genien, operatzaile txikiek kalitatezko Internet-a prezio onean eskaini zezaten, base-rri guztietara heltzeko aukerarekin”, dio proiektuaren sustatzaile eta Abaila Kooperatibako kide den Xabier Garmendiak. Helburu horri helduta, bidea Guifi-net-ekin batera egitea aholkatu zioten operatzaile txikiek udalari, fundazio katalanak sare askeen sustapenean duen esperientzia zabala kontuan hartuta.

Iñaki Ostolaza Zumaiako alkatearen hitzetan, Udal Gobernuak “hasieratik”

izan du gogoan zuntz optikoko sarea hedatzea, herriak ez baitu zerbitzu hori eskaintzen duen operatzailearik zein azpiegiturarik izan orain arte. Gauzak horrela, Guifi-net fundazioarekin hizketan hasi eta berehala jabetu ziren sare neutroen hedapenean aditua den erakundearekin elkarlana sustatzeak zabaltzen duen aukeren leioaz. Ostolaza ziur

Zuntz optikoa
herrian zabaltzeko
hasierako inbertsioa
amortizatzen,
erabiltzaileek
instalazioaren zati bat
finantzatzeko aukera
eskaintzen dute
sustatzaileek

dago proiektuaren etorkizunaz: “Gaur egun azpiegiturak garrantzitsuak dira, eta mugikortasun-azpiegiturak garrantzia gehien dute, baina etorkizunean garrantzia gehien izango dutenak informazioa mugitzen duten azpiegiturak izango dira”. Zuntz optikoko sareak horien ar-

tean egonik, Zumaiarako “aukera aparta” dela dio alkateak: “Zumaiar guztiek modu neutro eta irekian Interneteko abiadura handiko sarbidea izateko”.

SARE MANKOMUNATUA

Zuntz optikoa instalatzen den lekuetan ohikoa da sarea kudeatzeagatik etekin osoa ateratzen duten enpresa bakan batzuek gailentzea. Gainera, operatzaile horiek merkatu-kuota handiak dituzten multinazionalak izaten dira. Sare mankomunatuaren logika, aldiz, kontrako norabidean doa: azpiegituraren jabetza partekatua baitute oinarri. Kudeaketa-eredu horrek saihestu egiten du eragile bakar batek sare osoaren gaineko erabateko eskumena izatea, eta bide batez, operatzaile txikiei euren zerbitzua prezio leihakorrean eskaintzeko aukera luzatzen die. Hori ez ezik, kanalizazioen erabilpen arrazionalagoa ere bermatzen dute sare mankomunatuak, izan ere, operatzaileek zuntzaren azpiegiturak partekatzen dituztenean, zerbitzu bera eskaintzen duten kable-instalazioak errepikatzea saihesten da.

NEUTRALA

Azpiegituraren neutraltasuna da proiektuaren beste oinarri garrantzitsuenetako bat, hots, zerbitzua eskaini nahi duten operatzaile guztiek aukera eta baldintza berdinak izatea. Zumaiako kasuan, Guifi-net arduratzen da arau horiek errespetatzen direla bermatzeaz. Merkaturatzearen arloko jarduerak modu egokian egiten direla ere behatzen du, operadoreen arteko bitartekaritza-lanak eginez eta euren artean sor daitezkeen gatazkak konpontzeko baliabideak luzatuz.

Guifi-net fundazioaren Operazioen Zuzendaritzako kide den Miguel Ángel Irigoyenen arabera, “ezein operadoreen sare eskusiboak ez izatean datza neutraltasuna”, hau da, operadore guztientzat irekiak izatea eta sareen bikoiztasuna saihesteko partekatzea. Fundazioak azpiegitura bera ere kudeatzen du gainera, “dena neutraltasun hori bermatu ahal izateko, eta operadore bakar batek ere ez dezan sarea gehiegikeriaz erabili”, dio Irigoyenek.

Alderdi teknikoaz gain, sare neutralek badute euren dimentsio soziala ere, “konpentsazio-mahaia” izeneko antolakuntza-organoen bidez. Mahai horietan kezkak eta premiak partekatzen dira, bai eta sarearen erabilpenari edo balizko agorpenari buruzko ikuspegiak ezbaian jarri ere. Bertan hartutako erabakiek



“guztion onurarako izango diren hedapenak” bideratzen dituztela aipatu du Guifi-net-eko kideak.

ERRALDOIEI PULTSUA

Zumaiako etxeetara 1.000 mega simetriko arteko konexioa helarazteko gaitasuna izango du sareak, operatzaile handiek herrian eskaini dezaketena baino askoz bizkorragoa. Gainera, abiadura hori “etorkizunean handitzeko aukera” dagoela ziurtatzen du Guifi-netek. Konexioari jarraiki, proiektuaren eraikuntzan parte hartu duten operatzaile guztiek kalitate berdina eskaini ahal izango dute. Hortik aurrera, zumaiar bakoitzak erabaki dezake zein operatzailearekin kontratatu zerbitzua.

Proiektu komunitario askoren gabezia prezio altua, leihakortasun eskasa eta bideragarritasun ekonomiko urria izan ohi da, eta enpresa handiena, berriz, muturreko leihakortasuna eta zintzotasun falta. ZOZ sareak Guifi-neten eskutik zenbait pauso eman ditu biak gainditzeko, eta horretarako gakoa negozio-eredua dela azaldu du Irigoyenek: “Irabazi asmorik gabeko erakundea gara, beraz, inbertsioak eta proiektuak iraunkortasun ekonomikoaren ikuspegitik diseinatzeko, ez etekina maximizatzearen ikuspegitik. Hori ez da enpresa pribatuarekin gertatzen”. Zentzu horretan, kostu finkoak murriztea bilatzen dute erabiltzaileak gehitzearen poderioz, erabiltzaileei ohiko telekomunikazio-enpresenak baino interesgarriagoak diren prezioak eskaintzea ahalbidetuz. Kostu finkoak zaintzeak “bestelako sare-eredu jasangarriak edukitzeko aukera” zabaltzen duela ohartarazi du Guifi-netek; “bestela, mantentze-lan desagokiak eta utzikeriak sareak hondatu egiten ditu”. Hori gerta ez dadin, proiektu lokalekin gertutik egiten du lan fundazio katalanak. Bestalde, operadoreekiko transferentzia-kostuak ere sortzen ditu, eta horiek dira azken erabiltzaileari eragiten diotenak; “betiere, merkatuan operadore handiek eskaintzen dutenaren azpitik”, argitu du Irigoyenek.

FINANTZAZIOA

Zuntz optikoa herrian zabaltzeko hasierako inbertsioa amortizatzeko, erabiltzaileek instalazioaren zati bat finantzatzeko aukera eskaintzen dute sustatzaileek. Horrela, hilero ordaindu behrreko tarifen gutxiago ordainduz jarritako diru hori berreskuratuz joango dira. Zumaiako kasuan, 17€ izango lira-



teke hilean, eta lineako kouotaren kopuru hori hilero aurreztuta, inbertsioa lau urteren buruan amortizatzeko aukera emango lieke bezeroei. Hortik aurrera, ekarpena egin duten bezeroek prezio merke eta finkoa izango lukete behin betiko. “Borondate komunala kudeaketa egokia eta sarearen titulartasunean parte hartu dutenen artean banaketa justua egotea bermatzen dugu, besteak beste, erabiltzaileen artean”, ondorioztatu du Irigoyenek.

Herriko ekonomiari lotuta, Zumaiako enpresentzat ere onuragarria izango delakoan dago alkatea: “Bai telekomunikazioen arloan aritzen direnak, baita gainontzekoak ere. Azpiegitura hori eskura

izatea etorkizuneko ekonomiarentzat oso garrantzitsua da”, uste du. Garmendiak ere, telekomunikazio kooperatiba txiki bateko kide den heinean, argi ditu ZOZen abantailak: “Sarearen dokumentazioa zuzenean eskura du operatzaile orok eta azpiegitura kostuak denentzat berdinak dira, minimo edo sarrera kuotarik eskatzen ez delarik”.

Gainera, Zumaiakoa inguruko herrientzat ere izango delakoan dago. “Zuntz optikoko beste era bateko telekomunikazio sareak eraikitzea dagoela argi utzi duelako”, azaldu du. Behin ZOZ sarea guztiz martxan jarrita, “metodologia eta sistema berri batekin inguruko herrietara zabaltzea” espero du Garmendiak. ●

ADIZKINATOR

Aditz-taulak mugikorraz ikas daitezke

Itzultzaileak, hiztegiak eta orain aditz-taulak. Adizkinator mugikorrerako aplikazioa sarean eskuragarri jarri dute; tresna sinplea, erraza eta azkarra. Euskara ikasketa prozesua “lagungarriago” egin dezakeen “tresna osagarria” da egilearen iritziz.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Nork ez ditu gogoan euskarazko aditz-aula luze eta zenbaitetan korapilatsu eta nahasgarriak. Aski ezagunak dira. Silabaz silaba, azkenean aditza osatu eta, praktika ordu askoren ondoren, aditz konplexu horiek barneratzen dira, apurka-apurka. Bada, hainbat lagunen borondatezko lanari esker, taula horiek badute alternatiba sare digitalean. Horiekin, era sinple eta azkarragoan, baita ziurragoan ere, instant batean jaso daiteke bilatzen den aditza. Aski da mugikorrari datuak ematea segundo erdian emaitza eskuratzeko: zein aditz, zein modu eta zein alditan bilatzen den galdetzen du eta, ondoren, nork-norri-nor formula gehitu behar zaio. Aditzak jokatzea ez da inoiz hain erraza eta sinplea izan.

“Ez nuke esango aditz-taulen alternatiba denik; gehiago da ordezkoa, edo gehiagarria”, adierazi du Ander Herranzek, Adizkinator aplikazio berriaren sortzaileak. Taula ezagunen “tresna osagarria” gisa erabiltzeko sortu du mugikorrerako aplikazioa, batik bat euskara ikasleei zuzenduta. Dena den, erabiltzaile potentzial nagusia euskara eskoletako ikaslea izan arren, euskal aditzaren gainean zalantzarik edo jakin-minik izan dezakeen edonork bultzatzen du erabiltzera.

Uribe Kostako AEKn da irakasle Herranz. Gaztea da, laugarren ikasturtea du aurtengoa, eta urteotan ikasgelan ikusita-

ko gabezia bati erantzunez ondu du Adizkinator aplikazioa. Izan ere, gaur egun, mugikorrekin tokitxo hartua dute ikasleen mahaian: tresna bat gehiago dira ikasketa prozesuan, batik bat hiztegia kontsultatzeko. Oro har zalantzak argitzeko egokia dela uste du Herranzek, eta erabileraren alde dago, baina aditzak jokatzerakoan, mugikorra alboratu eta aurrez aipaturiko aditz-aula aski ezagun horietara jotzen zuten ikasleek. “Bazen garaia aditzen bilaketa eta ulertze lana errazteko”.

Ikasmolde zaharra, ordea, ez dute alboratzeko asmorik. Horregatik dio ez duela alternatiba sortu, baizik eta tresna gehigarria, egunero eta une oro erabili ordez, momentu zehatzetan soilik bertara jotzeko. Kezka puntu bat ere baduela adierazi du, izan ere, “tresna batek dena esan behar badigu, momentu oro, azkenean ez dugu ezer ikasiko”. Taulekin alderatuz, baina, sinpletasunean, erraztasunean eta azkartasunean gailentzen da aplikazioa; baita eraginkortasunean ere, datuak ondo ematen bazaizkio.


AURREKARI BI

Esker ona adierazi eta meriturik ez die kendu oinarritzat hartu dituen aurreko antzerako bi lanei. Izan ere, duela hamar urte sortu zen euskarazko aditzak jokatzeke lehen tresna digitala: Aditzak.com webgunerako bertsioa eta aplikazioa. Beste bat ere bada, Euskal Herriko Uni-

bertsitateko Euskara Institutuak sortua, Adizkitegi Automatikoa deritzona. Hiruak elkarren “osagarri” direla uste du Herranzek.

“Aditzak.com erabiltzen eta gomendatzen nuen klasean, baita EHUn Adizkitegia ere, baina nire nahiak ez ziren guztiz asetzen”, aitortu du Herranzek. Lehena, Garikoitz Knörrrek egindakoa, oso erabiltterraza eta aproposa dela dio, baina berantotarraren ustez baditu hutsune bi: ez du ez alokutiboa ez aditz trinkoak jokatzeke aukera ematen. Azken hau behar zuen kasuan EHUK landutakora jotzen zuela dio, baina uste du ezagutza tekniko handia eskatzen zuelako ez dela hain aproposa ikasleentzat. Horregatik, bere aletxoak jarri eta aplikazio bakarrean biak uztartu ditu.

Knörr jakitun da bere aplikazioan aditz trinkoen gabezia eta denbora zerraman Aditzak.com aplikazioa berritu nahian. Eguneratzeak egin ditu 2011tik hona, eta baditu asmo eta erronkak aurrerago heltzeko. Baina sorburura ere jo behar da: bi aplikazioen abiapuntua ez zen izan, noski, gaur egungoa, eta Knörrrek ez zuen Herranzek bezala espresuki ikasleentzat sortu. Itzulpengintzan murgilduta zebilen Knörr aplikazioa egitea otu zitzaionean, batik bat, berak faltan botatzen zuen tresna edo baliabide bat zelako: “Nagusiki sortu nuen neronek behar nuelako, baina banekien ziur jen-



de gehiagori ere ondo etorriko zitzaiola". Zalantzak argitzeko eta ziurak eta praktikoak izateko helburu jakina zuen: "Guztioi sortzen zaigu zalantzaren bat edo beste; nire kasuan, aditzak egiaztatze eta ziur egoteko oso praktikoa iruditzen zitzaidan".

Euskara ikasketa prozesuan, sare digitalak eskaini ditzakeen teknika berrietan, izan du bere mugarria Aditzak.com tresnak. Huts-hutsetik sortu zuen Knörrek, oinarri-eredurik gabe, informatika ezagutza duten bere anai-arreben laguntzarekin. Valentziako Hizkuntza Eskolan 2015ean eskaini zuten lehenengoz euskara ikasteko aukera, eta hasiera batean aplikazioa ikasleekin erabiltzen ez bazuen ere, urteen poderioz ikasketa maila altuagoak txertatzen joan ahala Knörren ustez, ikasleek asko estimatzen dituzte halako tresnak.

Aurrerapen edo primizia moduko bat ere bota du. Bertsio garatuago bat prestatzen ari da: Aditzak.eus –dagoeneko ikusgai dago zirriborroa–. Funtzio berriak izango ditu: aditz trinkoak eta hitano estandarra jasoko ditu, eta intentzioa

du Euskaltzaindiak jasotako euskalkiak ere sartzeko. "Berritasun handia zatekeen, baina aitortu behar dut Adizkinator aurreratu zaigula", azaldu du irribarre batez.


IRAKASLEEN ELKARLANA

Antza, kasualitatez, Herranz aurreratu zaio Knörri eta batak eramango du besteak eramango ez duen ospea. Umorez eta graziaz diote biek, nahiz eta azpimarratzen duten sortu dituzten tresnak elkarren osagarri eta lagungarriak direla. "Proiektu honetatik ez du inork dirurik ateratzen, izan ere, helburua bakarra da: euskararen irakaskuntzarako lagungarri izatea. Beraz, ongi etorriak halako proiektuak; benetan pozgarria da", adierazi du Knörrek.

Bi irakaslek euren borondatez sortutako ikasketa-tresnen berri eman du artikuluko honek, izan ere, hala ikusita, ez dirudi kasualitatea irakasleak aritzea horretan buru-belarri. Knörren ustez, beste hainbat esparrutan bezala, benetan gabezia barnetik sumatu eta bizi arte, halako proiektuak ez dira sortzen. Azkenerako,

Ander Herranz
Adizkinator-en
sortzaileak esker ona
adierazi eta meriturik
ez die kendu oinarritzat
hartu dituen aurreko
antzerako bi lanei:
aditzak.com eta
Adizkitegi Automatikoa

biek ala biek irizten diote laguntza handia dela halako tresnez baliatzea, irakaskuntzarako zein ikaskuntzarako. Hargatik guztien eskura jartzen dituzte baliabideok, nahi duenak erabil ditzan. Dagoeneko, dakigunez, Adizkinator aplikazioa behintzat hainbat euskara eskolatan erabiltzen hasi dira. ●



Mary Mallon, 26 urte koarentenan



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

New York, 1915eko martxoaren 27a. Mary Mallon sukaldaria berrogeialdian sartu zuten North Brother uharteko ospitale batean, hainbat eta hainbat pertsonari sukar tifoidea kutsatu ondoren. Ez zen arrazoi horrexegatik koarentenara behartu zuten lehen aldia, baina azkeneoa izango zen.

Mary Ipar Irlandan jaio zen 1869an eta 15 urte zituela, beste herrikide asko bezala, AEBetara joan zen bizibide errazago baten bila. Sukaldari lanetan aritu zen, 1907an sukar tifoidea hiriko klaseertain eta altuko familiarietan zabaltzen hasi zen arte. George Soper saneamendutegia ingeniaria gaixotasunaren agerraldi berriak aztertzen ari zen eta konturatu zen kutsatutako hainbat familiak zer-baitetan bat egiten zutela: Mary Mallon zen haien sukaldaria. Sintomarik izan ez arren, bera zen kutsatzailea, eta horrexegatik giltzapetu zuten North Brother irlako ospitalean. Lehen berrogeialdi hura hiru urtekoa izan zen.

Askatu zutenean, sukaldari aritzea debekatu zitoten, baina Mallonek ez zuen beste ogibiderik. Identitatea faltsututa, lanean -eta ingurukoak kutsatzen- jarraitu zuen, 1915ean berriro atxilotu eta ospitalean sartu zuten arte. 1938an hil zen Mary Mallon, Brother Island uhartean isolatuta, azken sei urtetan ohetik jaiki ezinik.



Typhoid Mary ezizena jarri zioten komunikabideetan eta "Amerikako emakumerik arriskutsuena" titulua ere bai. 500 kutsatze eta 50 hildako inguru leporatu zizkioten, egiaztatutako kasuak askoz gutxiago izan arren: 51 kasu eta 3 hildako. Sintomarik gabeko patogeno eramaile baten kasua, superkutsatzaile

baten kasua aztertzen zen lehen aldia zen, baina ez zen kasu bakarra. Esaterako, New Yorken bertan, garai bertsuan, Tony Labellak gutxienez 122 pertsona kutsatu zituen, eta horietatik 5 hil ziren. Labellak bi aste eman zituen koarentenan; emakume etorkin pobreak, aldiz, guztira, 26 urte. ●

Veneziako beira Alaskan

Alaskako (AEB) Brooks mendilerroan ikertutako kokaleku eskimal batean Erdi Aro amaierako Veneziako beirazko bihi batzuk topatu berri dituzte. Kolon aurrekoak direnez eta Veneziar landu eta gutxira Alaskaraino iritsi zirela egiaztatuta, garbi dago Europatik Alaskara ez zirela Atlantikoa zeharkatuta iritsi, Bering

itsasartetik baizik. Jakina da Aro Modernoaren ateetan, Europa eta Asia arteko merkataritza harremanak oso egituratuta zeudela, Zetaren Bidea medio. Baina beira ale hauek eta berriki aurkitu diren beste frogak batzuek pentsarazten dute Asia eta Amerika arteko trukeak orain arte uste baino ohikoagoak zirela. ●



ARGIAREN EGUTEGIA

Beste historiak eta historiako besteak ikasgai Lapuepla de Labarkako ikastolan ARGIaren egutegiaren bidez

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Zenbat historia ote daude kontatzea merezi dutenak. Akaso historia guztiek izango dute kontatzea merezi. Edo merezimendu horretaz jabetzen naiz, historia denei ez zaielako trataera hori ematen. Gailendutako historia jasotzen dugu normalean. Irabazlearena. Baina azpikoen kontakizunak ahanzturan ez galtzeko ahaleginak ere egiten dira. Badute hortik zerbait ARGIaren egutegiko efemerideek eta Lapuepla de Labarkako Assa Ikastolan baliatzen dituzte beste historia batzuk edo historia bereko beste batzuk ezagutzeko.

Sare sozialetatik jaso dugu Kitz Mendiola Barandallaren mezua. Irakasle lanetan dabilela eta jakinarazteko, bate-tik, pertsonalki asko gustatzen zaiola ARGIaren egutegia eta, bestetik, gainera Historia Garaikideko eskolak emateko erabiltzen duela efemerideen materiala ikasleekin.

Astean behin egiten dute ariketa batxilerreko lehen mailako ikasleek. Biltzen dituzte asteko efemeride esanguratsuenak, denen artean irakurtzen dituzte eta hasten dira gai horiez hizketan. "Landu dugun gairen batekin zerikusia badu, gai hori jorratzeko aukera zabaltzen digu; berria bada, ez dakigun horretaz, bitxia egin zaigunaz... hitz egiteko aukera paregabea sortzen da", azaldu du Mendiolak. Eta ja-



rraitu du: "Gai ezberdin asko jorratzen dira efemerideetan; arlo desberdinak, gertukoak zein urrunekoak, ertzetako borroak... eta guztiak euskaraz! Hezkuntzan, irakasleok curriculumaren gaitegia dugu gaineratik, eta testu-liburuetan saialera egiten bada ere, kontaketa eurozentrista gailentzen da. Ikuspuntu feministak, ertzetako borrokek edo errealtateek leku gutxiegi dute nire gusturako eta hutsune hori betetzen saiatzen naiz modu desberdinetan. ARGIAko efemerideekin lanketa egitea oso interesgarria iruditzen zait".

Harrera ona izan du ariketak ikasleen artean. Irakaslea beldur zen asterokoa izanda errepikakorregia egingo ote zitzaien, baina jabetu da inoiz denboraz larri ibili eta aste horretakoa prestatu ez duenean ikasleek eskatu egin diotela. Interesaz jabetuta, hirugarren hiruhilekoan bakoitzak bere jaiotegunari lotutako efemeride edo gertakari historiko bat biltzeko eskatuko die, denen artean eskolako efemerideen egutegi txikia osatzeko.

Horrelako historiek ere merezi dute kontatzea. ●

Esperientzien kutxa

SAIL BERRIA ASTEKARIAN

Hurrengo asteko astekarian sail berri bat aurkituko duzu Komunitatea orri honen ondoan: "Esperientzien Kutxa". Ekonomia sozial eraldatzailearen sarea den Olatukoopek eta Argiak elkarlanean egindakoa da.

Astero, Olatukoopeko kide den proiektu batek azalduko du berari baliagarri zaion lan praktika bat. Ekonomia sozial eraldatzailearen ekinak ikusarazten eta elkarrengandik ikasten laguntzen dute artikulu hauek.

Esperientzien Kutxa argia.eus eta olatukoop.eus webguneetan abiatu dugu lehenik, eta dagoeneko hamar artikulu aurkituko dituzu hauetan. Ikusteko, sartu www.argia.eus/esperientzien-kutxa helbidean.



ONGARRI GORDINAK ETA SAPELARRA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Ongarriketaren gaia ez da saguzarraren eguerdiko dominiatua. Luarra, simaurra edo dena delako ongarriarekin beti helburu bera dugu: lurrari bizia ematea. Lurrari ematen diogu eta ez landareari. Lurraren baitako mikroorganismoen bizimodua sustatzen dugun neurrian lurra biziago izango da eta bizialdi horretatik osatuko da lur horretan hazten ari diren sustraien manjatera.

Ongarriketan produktu kimiko industrialak erabiltzen ditugunean lurrari bizia kentzen ari gara. Lurra piztu beharrean erretzen ari gara, hiltzen. Ongarriketa kimikoa etengabekoa bihurtzen bada, gero etorriko da lurraren antzutea: janariz lepo betea baina kateatuta dagoen lurra, sustraiek janariok hartu ezin dituztela. Lur gaineko landarea indargabe, erkin, kaden flakiak jota bezala ikusiko dugu, eta uztarik ez. Lur horiek nekez bere oneratzten dira eta irtenbidea okerragoa da: hidroponikoa, hau da, lurrik ukitzen ez duten landareekin uztak ekoiztea; hori bai kimikoa, azkena!

Horrelakorik ez gertatzeko ongarriketa organikoa erabili beste aukerarik ez dugu. Gure bizimoduak sortzen duen "hondakin" organiko guztia erraustegi hiltzailetara bideratu orde luartu eta ongarri bihurtu beharko genuke, eta bueltan, elikagai, lurrari eman.

Simaurreak luartuta edo onduta ema-



tea da ohikoena, baina jaki berdeak, freskoak, heldugabeak bere gordinean ematea ere ez da gauza berria gure nekazariarentzat. Baina hala dirudi. Landareak bere gordinean lurrari emateari ongarri berdea esaten zaio orain. Nik gurean ez dut horrentzako izenik ezagutu, baina izenik gabe ere erruz egin izan da.

Ongarri berdearen helburu nagusia lurra ontzeta da. Lurraren egitura fisikoari eta kimikoari eustea edo baldintza hobetara eramatea. Ongarri hitza bere osotasunean betetzen du, lurrari on ugari egiten dio: jakiak ematen dizkio, baina baita ere harrotzen du, lurra sakonean lantzen du, azpiko jakiak gora ekartzen ditu, azaleko higadura eragozten du, lu-

rraren bizitza zikloa aberasten du eta abar. Ongarri berdea egiteko, erabili gabe dauden lur gorri zatietan, baratze eta soro, landare nahasketa jakin bat ereiten da. Landare horiek heldutasunera iritsi eta loratzera doazenean moztu eta lurra-ekin berarekin nahasten dira. Horixe da ongarri berdea, gordina. Oraintxe egiten da mozte hori, landareak izerdi berriaren indarra izan eta lurrari eman diezaion. Inork ba al du lan horretarako "ongarri berdea" ez den euskarazko izenik? Edo tajuzko izen proposamen berririk?

Udazkenean utzi eta orain barazki edo landare landaturik gabe "hutsik" dauden baratzeak taulenak edo soroak, ezer erein gabe utzi baditugu ere landare askok kolonizatuta dituzte. Horiek, bakoitzak bere neurrian, ongarri berdearen lana egiten dute. Bat edonon ezaguna dela esango nuke: sapelarra (*Stellaria media*) edo sapelarra, edo txabarkoia, edo albaraka-belarra, edo arpelarra, edo... Berez ondo ongarritutako lur landuetan udazkenean sortzen den belar tortoka da eta oraintxe loratzen da. Loratu denean udaberria iritsi dela esaten da. Aziendak urte sasoi honetan izaten duen berde gosearekin oso gustura jaten du, baina kontuz eman behar omen zaio, puztu egiten omen du-eta. Loratu denean lurra lantzeko garaia etorri da. Gure etxean urtarilaren amaieran loratu zen eta baratzearen sasoi berria abiarazi zuen. ●



**Zure osasuna
zaintzeko garaia da.
Bertokoa eta ekologikoa
kontsumitzeko garaia da.**



**Euskadiko Elikagai
Ekologikoak**
Alimentos Ecológicos
de Euskadi

IZTUETA ESNEKIAK

ABELTZAINZA ETA TRANSFORMAZIOA UZTARTZEN DITUEN FAMILIA PROIEKTUA



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

1 925ean sortu zen Iztueta esnekien proiektua Lazkaon, eta Insausti sendiko hainbat belaunaldi pasatu dira bertatik. Eñaut Sala Insausti eta Marije Insausti ama-emeak daude gaur egun proiektuaren atzean, hirugarren eta laugarren belaunaldia alegia. Eñaut Salak horrela kontatu du: “Amak beti kontatu izan du txikia zenean esnea banatzera astoarekin jaisten zirela kalera”. Berak ere gogoan du nola ibiltzen zen umetan amarekin etxez etxe esnea banatzen. Herrietako betiko esne banatzaileak aspaldian hasi ziren galtzen, baina Iztuetako kideek jakin dute haien produkzioa eta salmenta modua garai berrietara egokitzen. Oinarrian, baina, filosofia bera izaten jarraitzen dute: denboran iraungo duen ekoizpen jasagarria egitea.

ESNETIK JOGURT ETA IZOZKIETARA

35-40 bat behi dituzte Iztueta baserrian, etxean jaio eta hazitakoak guztiak, eta larruetan bazkatzen izaten dituztenak. “Animalien ongizateari eta ingurumenarekiko errespetuan lan egiteari asko begiratzen diogu gure eguneroko jardunean”, azaltzen du ekoizleak. Bere aurrekoek esnea



ekoitzi eta zuzenean saltzen zuten, baina 1993an, esne gordina poltsaratzen hasi ziren. 2004ean, pauso bat gehiago eman eta esnea pasteurizatzeari ekin zioten, eta 2009an berriz, EAEko lehen esne makinak jarri zituzten Ordizian, Lazkaon eta Beasainen. Zuzeneko salmenta egiteko bide berrien bila aritu dira urte hauetan guztietan Iztuetako kideak. Esnea poltsaratzen hasi zirenean ukuiluan esnetokia handitu eta jogurtak eta izozkiak egiten hasi ziren 2015ean. “Tradizioa eta berrikuntza uztartzen saiatzen gara, produktu artisauak egiten, baina teknologia berriak ere erabiliz”. Jogurt naturala, marrubizkoa eta muxika eta marakuiazkoa ekoizten dituzte, eta izozkietan, berriz, bost zapore dituzte aukeran: banilla, jogurta, txokolata, limoia eta hurra. Carlos

Arribas Zarauzko izozkigile ezagunarekin ikasi zuen prozesua Salak. Horiez gain, orain gazta zabalgarria ere egiten dute; naturala eta ezpeletako piperrarekin egina. Esnekiak lantzeko Leartiker zentru teknologikoarekin egiten dute lan.

KONTSUMITZAILEAREKIN ZUZENeko HARREMANA

Kalean esnea saltzetik beste forma batzuk hartzen joan badira ere, zuzeneko salmentari garrantzia handia ematen jarraitzen dute Iztuetan. “Guk garbi dugu baserriak aurrera ateratzeko salmenta zuzena egin beharra dagoela, erosten duenak baserriarekin zuzeneko harremana izateak asko laguntzen baitu” dio Salak. Salmenta puntuak ia Gipuzkoa osoan dituzte. Esne makinak aldiz, Lazkao, Beasain eta Ordizian (etxetik 2minutura). Haien ohiko salmenta puntuak denda txikiak dira baina baita supermerkatu batzuk ere.

Baserrian bertan ere badute salmenta puntu txiki bat, eta bizilagunek eta Iztuetan antolatzen dituzten bisita gidatuetara joaten diren herritarrek hor dute produktuak erosteko aukera: “Ate irekiak egiten ditugu baserrian, gure egunerokoa eta lan egiteko modua erakustea gustuko dugulako. Hiriko eta baserrietako jendea elkartzeko modu ona dela uste dugu”, amaitu du. ●

ELIKADURAREN TOP 5

- 1 Ekologikoak
- 2 Bertakoak
- 3 Freskoak
- 4 Sasoikoak
- 5 Lehen sektoreak hornituta

Logo: **eko-logikoak** para vivir mejor!

Logos: Gobierno de Navarra, CPAEN NNPEK, European Union.

TANGER, INTERFERENTZIARIK EZAREN SANTUTEGIA

1950eko eta 1960ko hamarkadetan sortzaile andana finkatu zen Tangerren, zineak eta literaturak hiriaren inguruan eratutako irudi mitifikatua tarteko. Hiriko kaleetako giro aske eta iluna gozoki erakargarri bilakatu zen haien herrialdeetako giro puritanotik ihes egin nahi zuten artistentzat, besteak beste, *Beat Generation* bazterreko literatur mugimenduko AEBetako idazleentzat eta geroago, Ekialdera begiratzen zuten hippyentzat. William Burroughs *beat* idazlearen hitzetan, "Tanger munduan geratzen den leku bakanetako bat da, non nahi duzuna egin dezakezun, lapurretarik egiten ez duzun eta indarkeria erabiltzen ez duzun neurrian eta jarrera antisoziala argi eta garbi onartzen ez duzun heinean. Interferentziarik ezaren santutegia da".

 JULEN AZPITARTE

Tangerrek idazle eta intelektua-
lengan eragindako xarma lizuna
ulertzeko ezinbestekoa da hiri-
aren aurrekari historikoei erre-
paratzea. Nabarmenezkoa da kokapen
geografikoa, leku estrategikoan baitago,
Gibraltarko itsasartearen aurrean. Hori
dela eta, mendeetan atzerriko hainbat
herriren jazarpena eta itzala jaso ditu.

Marokoren modernizazioa, bestalde,
Muhammad III.aren (1757-1790) esku-
tik etorri zen. Sultanak hamaika erreforma
abiatsu zituen, baina gerra ere piztu
zuen Espainiarekin 1774an, Carlos III.ak
Marokon zituen hiri eta gunek berres-
kuratzeko asmoz. Guda deklarazio hori
tarteko, Muhammad III.ak Tangerren
bildu zituen ordezkari diplomatiko guz-
tiak, hiri diplomatiko bihurtzeko. Ho-
rrekin batera, atzerriko zingo handiko
ontzientzako sarrera garrantzitsua zen
Tangerreko portua. Hartara, atzerriko
itzalagatik suertatu zen mitiko eta bere-
zi Tanger, hein handi batean.

Orduan hasi zen hiriaren nazioarte-
ko ibilbidea, zeina 1906an sendotu zen,
Algecirasko Konferentziarekin batera.
Espainiak Tanger bere protektoratu-
sarrarazteko ahalegin handiak egin zi-
tuen hamarkadetan, baina konferentzia
horren eraginez, Tangerrek Nazioarteko

Estatutua lortu zuen, 1923tik aurrera:
nazioarteko kontrol-eremua zen hiria;
alegia, hainbat herrialdek osatutako na-
zioarteko batzorde baten esku zegoen
haren gobernu eta administrazioa. Es-
tatutua halaberharrezko tresna izan zen
Tanger paradisu sozial, musikal, litera-
rio eta kultural bihurtzeko. Tangerreko
Nazioarteko Eremu hori 1960an amaitu
zen, hiriak erabateko independentzia
lortu zuenean; hain justu, Tangerrek
inoiz baino sortzaile atzerritar gehiago
hartu zuen sasoian, hau da, kontrakultu-
raren garaian.

SENARRA

Gerra arteko sasoia oso emankorra izan
zen Tangerren. Paul Bowles, hain justu,
1931n iritsi zen hirira, pianoa aldean
zuela. Bowles musikari eta konpositore
eskolatua zen, baina idazteari ekin zion
Tangerren. Handik bi urtera, *The Shelter-
ing Sky* (Zeru babeslea, 1949) eleberri
arrakastatsua idatzi zuen. Estatubatua-
rra 1947an finkatu zen behin betikoz
Tangerren, Jane emaztearekin. Emaztea
bestalde, idazlea zen Tangerrera iritsi
zenerako.

Bizi ordenatuko sortzaile diziplinatua
zen Paul Bowles, baina Afrikako iparral-
dean gizon zalantzezko, misterioetsua eta

grisa bilakatu zen. Etxean ematen zituen
arratsaldeak, bakardadean, isilik, *kifa*
erretzen. Intelektual jantzia eta konple-
xua, pertsonaia etereoa eta misterioetsua
eraiki zuen bere inguruan, mito hezur-
mamitu arte. Hartara, Tangerreko bizi-
tza kontrakulturala Bowlesen inguruan
ardatu zen, eta Bowlesen irudiak xar-
matuta, kontrakulturako hainbat orde-
z-kari bertaratu ziren, besteak beste, Tru-
man Capote, Tennessee Williams, Patricia
Highsmith, Jack Kerouac, Allen Ginsberg
edo Rolling Stones taldeko kide Brian
Jones. Idazle tangeriarrak ere gertura-
tu zitzaizkion Bowlesi, tartean Muha-
med Xukri ezaguna. Xukrik, hain zuzen,
Bowlesi buruzko liburu bat idatzi zuen,
Paul Bowles wa' uzlatulanya (Paul Bow-
les Tangerreko preso, 1966), estatuba-
tuarrari zizkion miresmena eta gorrotoa
irudikatzeko. Xukriren lehenengo libu-
ruak transkribatu zituen Bowlesek, eta
liburu horien egiletza partekatu zuten;
antza denez, Bowlesek egile-eskubidee-
tatik eratorritako sosak ostu zitzaizkion tan-
geriarrari. Horretaz gainera, testua ere
eraldatu zuen, besteak beste, Mendebal-
deko idazle baten ajeak txertatuz.


EMAZTEA

Horiek horrela, hango eta kanpoko idaz-

leek eraiki zuten itsasarteko hiriaren izaera ustel eta transgresorea. Sortzaile horien artean nabarmenezkoa da Jane Bowlesen ekarpena, zeina senarraren pisuak lurperatu zuen. Gizonezko idazleak ez bezala, Jane hiriko eguneroko bizitzan integratu zen eta harreman asko izan zituen bertakoekin. Egun bere literatura ondarea aitortu da, baina sasoi hartan senarraren zama astunegia egin zitzaion. Bowlesek ez bezala, Janek Tangerrera iritsi baino lehen idatzi zituen bere obra garrantzitsuenak: *Two Serious Ladies* (Bi emakume serio, 1946) eleberrria eta *Plain Pleasures* (Plazer sinpleak, 1966) ipuin-liburua –antzerki lan bat ere argitaratu zuen–. Nortasun bitxiko emakumea zen, zurruteroa, desorekatua eta dibertigarria; idazle dudatsua, baina bikaina. Idazle liluragarria zen: ohiko idazketa-blokeo batek eraginda, Malagako (Andaluzia) osasun mentaleko zentro batean sartu zuten; bakardadean igaro zituen bere azken egunak, irakurtzeko gaitasunik ere ez zuen. Tangerren ezagutu zuten hainbat idazleren aburuz, aire fresko berritzailea izan zen Jane.

GIZON IKUSEZINA

II. Mundu Gerraren osteko gizarte estatubatuar zurrun eta beldurtiaren aurka altxatu zen literatura taldea izan zen *Beat belaunaldia*. Taldekideentzat leku kutuna suertatu zen Tanger, batez ere zentzura ezagatik, drogak erraz lortzen zirelako eta sexu-anonimotasunagatik. Belaunaldi anitz horretako ordezkari nagusia, behintzat adinari dagokionez, William Burroughs izan zen, zeinak egonaldia luzeak egin zituen Tangerren, 1953tik 1961era bitartean. Tangerrera iritsi zen lehen *beat* idazlea izan zen. Han idatzi zuen bere obrarik nabarmenena, *Naked Lunch* (Bazkari biluzia, 1959), zeina literatura garaikidearen klasiko bihurtu den. Liburu horretan txertatu zuen, hain zuzen, Tanger izendatzeko sortu zuen kontzeptua: *Interzone* edo *Eremuarterkoa*. Muniria hotelean hartu zuen osatu Burroughsek. Allen Ginsberg eta Jack Kerouac idazleak hoteleko logelan sartu zirenean, *Delirium Etxea* izendatu zuten: Burroughs substantzia toxikoak erostera baino ez zen ateratzen logelatik. Ginsberg eta Kerouacen lana ezinbestekoa izan zen *Naked Lunch* josteko, Burroughsen eta bere zuloaren egoera negargarria baitzen. Ondorioz, denbora



EZKERRETIK ESKUINERA:

Gregory Corso, Paul Bowles eta William Burroughs, Tangerren, 1961ean.

gehiago geratu ziren, eta lau hormen artean barreiatutako orrialdeak ordenatu eta mekanografiatu zituzten: “Tangerreko auzo mairuan bizi nintzen. Urtebetez ez nintzen bainatu, ez nuen arroparik aldatu, nire haragi haritsuan, mendekotasun terminaleko egur grisean, orratz bat orduro sartzeko soilik kentzen nuen arropa. Anpulu-kaxa hutsak eta zaborra sabairaino iristen ziren”. Hondamendi pertsonal hori tarteko, Burroughs mamu baten trazekin ibiltzen zen kaleetan barrera. Hori dela eta, Tangerrekoek “gizon ikusezina” izendatu zuten.

Tangerrek eragin txikia izan zuen *Beat* belaunaldiaren obran. Hiria askatasunaren ikonotzat hartu zuten, baina literatura turisten antzera igaro ziren Tangerretik, aurretik Mexikon egin zuten bezala. Burroughsen biografo Jorge Garcia-Robles mexikarraren esanetan, “[Burroughsek] ez zuen interes handirik erakutsi ezta bizi izan zen auzoak hobeto ezagutzeko ere, nahiz eta auzoetan, 1940ko hamarkadaren amaieran eta 1950eko hamarkadaren hasieran, bizitza kultural eta sozial esanguratsua izan”.

KALEKO UMEA

Sasoiko benetako Tanger ezagutzeko Mohamed Xukriren lanetara jo behar da. Haurtzaro gogorra izan zuen idazle tangeriarrak: familia oso pobrea jaioa, aita jipoitu egiten zuen. Haurtzaro baxi hori dela eta, etxetik alde egin zuen.

Tabernetan eta burdeletan pasatzen zituen egunak eta hilerrietan igarotzen zituen gauak, helduek bortxa ez zezaten. Hala, liburutetan aurkitu zuen babesa; idazten eta irakurtzen ere ikasi zuen. Bere literaturan nabarmena da inplikazio soziala: “Baztertutako, ahaztutako eta zapaldutako klaseak defendatzearen aldekoa naiz”, zioen. Bere hitzetan, “edonork pasa ditzake hemen aste batzuk eta liburutxo bat idatzi”. Hala, literatura turistik miresten zuten hiri-mitotik alden-duz, Xukrik hezur-haragizko Tanger jaso zuen bere obran, zeina bere bizitzaren isla den. Lanik azpimarragarriena Igela argitaletxeak 2010ean euskarara ekarritako *Ogi hutsa* da, gutxienez 50 hizkuntzataraz itzulua. “Liburu bakar baten ospeak zapaldutako idazleak bezala sentitzen naiz”, esan zuen lan horren harira. Bowlesek 1972an transkribatua, hamar urte geroago argitaratu zen arabieraz: agintariak zentsuratu egin zuten lehenengo pertsona kontatutako istorio errealek eta gordina, immoralak eta pornografikoa zela egotzita. Hauxe idatzi zuen Mikel Garmendiak euskarazko bertsioa argitaratu zenean eizie.org webgunean: “(...) Gosea, bai, horixe da kontakizun autobiografiko bikain honetako paisaia morala (...) Tanger, Oran, Larache... miseria-eremuak, non haztearekin batera deskubritzen diren mina, injustizia eta gupida”. Kifak eztitutako Mendebaldeko idazle sorginduen ikuspegitik urrun, oso urrun. ●

ISTORIO BAT KONTATZEKO

**ZINEGOAK JAIALDITIK
ZINEMAREN ETIKARA**

Film bat ikusten dugunean, nork zuzendu duen jakiteak testuinguru bat ematen digu. Zuzendaria ezagutu ez arren. Susmagarri gertatzen da, adibidez, Palestinako egoeraren inguruko filma AEBetako izatea, edo sexu-erasoa kontatzen duena gizonezko batek zuzendutakoa izatea. Elkarren azalean jartzearen ezinezkotasunetik abiatuta, LGTBQ+ komunitatearen inguruan egiten den zinemari buruzko hausnarketa da ondokoa.

 **AINHOA GUTIÉRREZ DEL POZO**
 **HELENA GOÑI**



ZILEGITASUNAZ

Martxoaren 1etik 14ra izango dugu aukera Zinegoak jaialdiaren 18. edizioa jarraitu ahal izateko. Aurtun, aurrez aurre nahiz Filmin plataformaren bitartez eskainiko dituzte proiektzioak, beste jaialdiak bezala COVID-19aren egoerara moldatu baitira. "Genero izpirik gabe" lelopean aurkeztu dute aurtengo edizioa, eta Helena Goñiren kartela hizpide izan du Pau Guillen jaialdiko zuzendariak. Guillenen hitzetan "gero eta ohikoagoa da 'pertsona ez binarioa', 'genero neutroa' edo 'mugarik gabeko generoa' bezalako kontzeptuak entzutea. Ez da beharrezkoa kontzeptu guzti-guztiak ezagutzea, baina bai behintzat jakitea genero-identitatearen mugak zabaldu direla eta aukera guztiak baliagarriak direla". Erretratu zabal hori nork egiten duen da, ordea, gakoa. Eta zein baldintzatan.

Zinegoak 2004. urtetik aurrera egiten den Bilboko Gaylesbitrans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia da, kultura, zinema eta aste eszenikoen bidez sentsibilizazioa bultzatzeko asmoz. Egun, Zinegoak erreferente bihurtu da nazioarteko LGTB jaialdietan eta urtero 100 bat lan pantailaratzen ditu, gehienak nazioarteko jaialdietan sarituak izan direnak. Zinegoakeko kultur-programazioa kalitatezko zineman eta arte eszenikoetan oinarrituta dago. Halaber, bere jarduera guztiek lotura dute honako ezaugarri guztiekin: arrazoi afektibo sexualengatik bazterkeria eragotzea, eta nazioartean gertatzen diren giza eskubide guztien urraketen eta familia eredu berrien ikusgarritasuna bultzatzea. Urtero ematen duten Ohorezko Saria aurtun Sébastien Lifshitz zinemagile frantsesak eramango du, jaialdiarekin bat datorren filmografia oparoa ikusarazteko. Lifshitzek LGTBQ+ mugimenduaren errealtatetik abiatutako film andana zuzendu ditu, baita nazioarteko sari ugari jaso ere, *Jean Vigo* saria eta Berlinaleko

bi *Teddy Award*, besteak beste. Azken sarietako bat *Wild Side* (Alde basatia, 2004) filmarekin jaso zuen, zeinak emakume transexuala duen protagonista-tzat; Lifshitz bera komunitatearen parte izateak ematen dio lanari gertutasun moduko bat.

Aurtengo edizioaren ildora itzultita, generorik gabeko gizartearen utopian zentratu da jaialdia. Ez da apustu inuzentea gaia agendaren lehen lerroa ekartzea kontuan izanik Espainiako Berdintasun Ministerioa prestatzen ari den Trans Legearen zirriborroa, edo azken boladan transexualitatearen gaia hartzen ari den presentzia. Komunitate horrek jasaten dituen erasoak salatzea behar argia da; joan den azaroan Bartzelonako etxe atarian jipoitu zuten 19 urteko transexual iruindarra eta gona eramateagatik eskolako psikologoarengana bidali zuten 15 urteko mutil bilbotarraren kasuak ditugu jazarpen horren adibide. Horretaz gain, homosexualitatea "sendatzeko" terapiak legez debekatzeko eskatu du hainbat kolektibok berriki, eta ugalketa lagundua emakume guztiei zabaltzearen aurka bozkatu berri du, bigarrenkoz, Frantziako Senatuak; gizarte-segurantzaren ordainketa baka-rrik bikote heterosexualei bideratzearen alde agertu dira. Horrelako gaiak biltzen dituen jaialdia beharrezkoa da, eta ez soilik ezkutuan dauden horiek ikusarazteko, baizik eta, batez ere, gizarte-ari isla egiteko; nork bere burua zalantzan jarraizatzen duen isla.

Zinegoak Jaialdiak hiru sail ofizial bereizten ditu: FIK (Fikzioa), DOK (Dokumentala) eta KRAK (Narratiba berriak). Sailetako bakoitzeko balorazioa LGTBQ+ komunitateko eta zinema industriako profesionalek osatzen dute, epaimahai mixtoa lortuz. Alde batetik, gaiekiko gertutasuna duenak, esperientzia eta bizipenetan oinarrituta, gaia jorrazteko etika ziurtatzen du; bestalde, zinemako langileak istorioa kalitatez kontatua izatea bermatzen du, eta

alderantziz. Bien arteko kontsentsutik adosten dira jaialdian ikusiko diren filmak, eta bi aldeek erabakita banatzen dira gero sariak. Maren Gonzálezek, Zinegoakeko programatzaileak, taldean sarri eztabaida izan dutela dio: jaialdi tematikoa ala zine jaialdia izan. Argi dago ez dela eztabaida erraza, jaialdiaren helburuaz ezbaian ari direlako. Zinegoak topagunea da, zeinetan komunitate baten partaide diren agenteek kanpora begirako bat egiten duten; erakustaldia da afina denarentzat, eta bada baita ere kolektibo baten printzipioen manifestua. Edonor izan al liteke, ordea, aldarri horien bozeramaile? Zilegi al da komunitateko kide ez den pertsona bat *bollera*, *marika* edo *transen* bizitzen inguruan aritzea?

Zinema dokumentalaren eta antropologiaren oinarrien etikaren bilaketara garamatza eztabaida honek. Eta ez naiz ari egileen "LGTBIQ+ txartela" erakutsi beharraz, edo norberaren zapalkuntzen zerrenda idatzia frogatu beharraz eze- ren inguruan hitz egiteko. Film autobiografikoak soilik egiten bukatuko genuke horrela. Aitzitik, modari segiz gai horiek lantzeak norbere pribilegioen hausnarketarik eza dakarrenean, susmagarri egiten zait. Nago erregimen heterosexualetik ateratzen diren bizi proposamen edo saiakerak marrazten direnean, beharrezkoa dela pantailatik harago esperientzia bizi izana horien berariazko- tasuna jasotzeko. Eta esperientzia hori denok daukagu, baina ez alde beretik eta modu berean. Ez naiz etikaren endogamia batez ari, nork bere istorioa kontatzeko beharraz baizik. Edo, funtsean, nork bere burua kokatzeaz zapalkuntza anitzen munduan, eta kokaleku horretatik kontatzeaz. LGTBQ+ komunitateko protagonista erreferenteak egotea bezain garrantzitsua iruditzen zait filmeen egileen ikuspuntua agerian gelditzea, nondik eta nola adierazten den hausnartzeko. Zilegitasuna, gero, komunitateak esleituko dio, ala ez. ●



LIBURUA

“Tempus fugit”, baina nola?



**HIRUKI
GATAZKATSUA**
MARINA SAGASTIZABAL
LISIPE

AMAIA ALVAREZ URIA

Eskertzekoa da ikerketa lanen bertsio dibulгатiboak egitea. Izan ere, ikerketa ororen helburua hori da, jendarteratzea, ezta?

Hiruki gatazkatsuari buruz ari da Marina Sagastizabal Lisipe bildumako azken alean. Hiruki hori osatzen dute etxeko eta zaintza lanak, enpleguak, eta parte hartze soziopolitikoak, izenburuaren bigarren zatian irakur daitekeenez.

Horren guztiaren oinarrian denbora dago, eta haren kudeaketa: zenbat denbora ematen diogu ordaindutako lanari? Eta etxeko kontuei? Zenbat denbora dugu senide, bikote/maitale eta lagunekin egoteko? Badugu denborarik herrian edo auzoan komunitatea eraikitzen/eraldatzen jarduteko?

Nondik jaio dira ‘prekarietate’, ‘autoesplotazio’, eta ‘nekearen aroa’ bezala-


ko kontzeptuak? Zenbat aldiz esan diozu ezetz proiektu interesgarri batean parte hartzeari “bizitzak ez dizulako ematen”? Ez zara inoiz etsita sentitu dena egin nahi baina ezinagatik? Noiztik ez duzu asteburu oso bat “zuretzat” hartu, horren ostean damurik sentitu gabe?

Literaturan ohiko gaietako bat da denboraren iragatea. Saiakera honetan ere horri begira jartzen gaitu egileak. Ikuspegi marxista-feminista batetik hitz egiten digu emakumeen jardunaldi hirukoitzari buruz eta hirugarrenean, arlo sozial eta politikoan, honek jarduteko dituen oztopoak aletzen ditu.

Egungo feminismoan lehentasuna diren zaintza politikak eta ekonomia feminista ditugu orriotan. Baita kapitalismoa, patriarkatua eta arrazakeria elkarrekin gurutzatzen direla gogoraraz-

ten dizkiguten zenbait testigantza ere. Dimentsio anitzeko krisia bizi dugula irakur dezakegu, azken urtean areagotu eta bizkortu dena. Pandemiak bizitza erdigunera ekarri baitu, nolabait, eta neoliberalismoaren erantzuna argia izaten ari da.

Liburu honek denborari buruz pentsatzeko eta eguneroko bizitzari bestela begiratzeko aukera ematen du. Kontzientzia hartzeko eskaintza da, gai honetan erreferente diren lan eta egile feministen laguntzarekin, eta irakurri ostean, hurbilekoekin eztabaidatzeko gogoia pizten du. Denoi eragiten digulako, modu batean edo bestean, gai honen, eta ardura hartuz etxetik bertatik eragin dezakegulako kolektiboan, nahi izatera, erlojuari hainbeste begiratu gabe. ●



MUSIKA

Rock-and-rollaren esentziak ez du adinik



IKER BARANDIARAN

Ez naiz batere nostalgikoa eta jakitun naiz belaunaldi bakoitzak bere tententziak dituela edo izan beharko lituzkeela. Era berean, oso argi daukat jada rock-and-rollak ez duela gazteen arreta pizten, punk-Oi!aren salbuespen harrigarriarekin, alegia. Hala ere, irribarrearen irten zait disko honetako lehen kantaren *baby* hitza irakurri dudanean. Beste-lako konnotazioetatik kanpo (zorionez), disko eta talde honek rock-and-rollaren topikoetatik gustura edaten du. Haizea kontra ari direlako ere, poztan naiz.

John Dealer and The Coconuts taldea 2015ean sortu zen Legazpin, rock-and-rolla zentzu zabalean ingelesez –eta ondo ahoskatuta– egiteko asmo sutsuaz. Bestelako proiektuetan parte hartuak ziren lau gazte elkartu ziren talde berean

indarra jartzeko gogotsu. Kontzertuak egiten hasi eta 2016an maketa kaleratu zuten. 2018an *We will get together in hell* lana kaleratu zuten. Azken lan honek, berriz, lehen aldiz euskarazko bi kanta jaso ditu. Aurrekoan bezalaxe Beasaingo Pottoko estudioan grabatu dute, Freddy Pelaez handiarekin.

Queens don't fall in love kantak badu Glueciferren urgentziatik eta harrotasunetik, baita 77ko punk-rockaren melodiatik ere, eta riff-ak asko gogorarazi dit Nirvanaren ezetz asmatu zein kanta. *Say no-k* badu ahaidetasuna Hellacopters-en *High Visibility* garajeroagoarekin –glam, rock dotorea...– eta Freddy Pelaezen hammond-ak ez dauka Boba Fett-aren inongo inbidiarik. *Someone Split the beer on my head* borrokalaria-



RED LIGHT STORIES

JOHN DEALER AND THE COCONUTS

AUTOEKOIZPENA

goa da eta oinarritzko rock-and-rollaren eta rockabillyaren kadentzia dauka, iluna eta bizia. Argi utzi dute, baita ere, euskaraz proposamen interesgarriak lantzeko gai direla, eta *Bukatu da* tempo erdiko 70eko hamarkadako hard-rock pieza dotorea oparitu digute. Rock-and-rollaren abaniko zabalean denboran atzera eta aurrera eginez, *Tell me why* kantaren Detroiten aspaldi high-energia eta soula ezkondu nahi zituzten Rationals moduko taldeen parean kokatu dira. *City of RnR*-ek ere badu iraganeko doinu indartsu eta sarkorretatik, *Severgrooves*-en dotoreziaren pare. *Ez gara ezer* eta *Never giving up*-ek taldekideen asmo eta kezak plazaratzen dituzte modu itsaskorrean, klasikoagoan eta zuzenean. ●



Indieak emakume izena eta izana ditu

IKER BARANDIARAN PABLO CABEZA

Aurten ere EHU Kulturak eta Black Izar sustatzaileak Indie+ Festival jaialdia antolatu dute bi ostegunez. Lehenengoan Nueva Vulcano, Sua eta Baobabs Will Destroy Your Planet taldeak aritu ziren; eta bigarrenetan, berriz Eneritz Furyak, Sara Zozaya eta Maria Berasarte; azken horretan izan ginen.

Aretoa ez zen bete, baina jende dezente hurbildu zen hiru emakume handi hauen emanaldia ikustera. Eneritz Furyak irundarrak izan zuen kontzertua hasteko ardura, bere sorkuntza eta umore bereizgarriarekin. Gitarra eskutan eta efektuak jaurtita kaleratzear zegoen *Emadan* diskoa aurkezteari ekin zion, hainbat pieza berri eskainiz. Bere marka diren tenpo lasaiak berezko ahots indartsuaren igoera eta beherakadez, saltoka, aberastuta. Ahotsarekin eta melodiekin jolastea gustuko du eta horrela ekin dio oraingoan ere. Horrez gain, zaharragoak diren *Zaldi zuria* borobila eta *Esnatu nintzen* gogoangarria ere berreskuratu

zituen, azken hori gitarra gabe giro elektronikora ekarrita eta burlesque eta soulean ere arakaturaz. Ahots propioa duen artista dela erakutsi zuen.

Horren ostean, Sara Zozaya donostiarra igo zen agertokira, eta berarekin batera aspaldian alboan dituen gitarra jotzaile eta bateria jotzaile oso finak, *power-trio* borobila osatuz. Helburua, *I* izeneko azken lana aurkeztea. Zozayaren eskaintza sotila da itxura batean, baina asko du ezkutuan (eta azaleratzen du batzuetan): xuxurlari ekiten dio teklatuarekin melodia gorpuzten eta gai da poliki-poliki intentsitatea igotzen PJ Harvey-ren tamainako post-rockera helteraino. Euskara da bere hizkuntza kuttunenetakoa, baina erregistro asko ditu estilistikoki zein hizkuntzei dagokienez: giro elektroniko, progresibo eta kiribilduekin jokatzen du sarri, auto-tunearekin lotsagabeki ausartuta emaitza onak lortzen ditu, gaztelaniaz ere ederto defenditzen da, eta ingelesez *mainstream* kantak borobiltzeaz gain, gitarra esku-

**ENERITZ FURYAK +
SARA ZOZAYA +
MARIA BERASARTE**

NOIZ: otsailak 11

NON: Indie Festival.

Bilboko EHU-Bizkaia Aretoa

tan duela giro ilun, pisutsu eta distortionatuak ere erdiesten ditu.

Arratsaldeko azken emanaldia Maria Berasarterena izan zen, eta lehen kolpean ikusleok jokoz kanpo utzi gintuen. Musika klasikoan jantzia den eta dozenaka kultura eta musika ikertu dituen emakume honek ahotsen esperimentazioan oinarritutako kanta batekin ekin zion kontzertuari, alboan David Azurzak bere ahotsez didgeridooaren soinu lortuz. Handik gutxira batu zitzaion Joseba Irazoki berdingabea gitarra, testurak eta giroak ehuntzera; eta geroago Igor Telletxea bateria eskarmentudunak erritmo sotil baina aberatsak gehitu zituen. Amazig kulturari keinu egin eta ahotso berotu ostean, fadoak eta euskal kantutegiko piezak uztartu zituen (*Txoriak kantari*), baina lekua egin zion tarteka rockabillyari, pop-rockari (*La noche más larga*) eta giro ilunagoei; eta bukaera hunkigarria eman zion Pierre Topet *Etxahunen Urzupal bat* lazgarriarekin. ●



Hitz gezidunak

LUR EREMU ZABALA AZAO		MAPUTOKO HERRITAR PLUTO- NIOAREN IKURRA		PILOTA-JOKO		NAFARROAKO MENDIA ATEAN JOTZE- KO PIEZA		ERDU PERTSO- NAIAREN ABIZENA		NAROTA- SUNEZ BASOETAKO SAGU	
TUPARRIA SUARI DARIONA						KATU AR HARTU					
		ABEREAK UXATZEKO NOTARIO			HIHAUR PERTSO- NAIAREN IZENA	SETATSU IRUZUR, MAULA					
BENETAKO ALTZATU								TXAKUR GIZONEZKO IZENA			
				LEHEN PAREAK					BEGIRA IZAKIEN OINARRIZKO ELEMENTUA		
HERRIA HOBETZEKO LAN	GRADU MILITARRA LITERATUR GENEROA				LORIA GOGOR						BARREA
							NAFARROAKO UDALERRIA LABORANTZA TRESNA				
3,1416 LIBRE, ASKE				EZKILA KONTSONAN- TE ERREPIKA- TUTA				BIZI GAREN PLANETA SANTUREN APOKOPEA			
					KARREZ BETEA INFUSIO MOTA					ROENTEGN DEZIBELA- REN IKURRA	
BORROKA- KIROL UMEKERIA						ESKASI ALDI BAT ERROMATAR ZENBAKIZ					
								ZELAIA, TOKI LAUA			

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	4		7			5		
			9					4
				5	4	1		8
2			1	8		4		6
7		9		4	5			3
3		5	8	7				
8					1			
		6			9		5	

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Esku bakoitzean bost ditugu
2. Liburu euskarri
3. Abil, iaio
4. Zurezko jostailuak
5. Alez ale

EBAZPENAK

1. HATZA
2. ATRIL
3. TREBE
4. ZIBAK
5. ALEKA

2	5	8	6	3	4	7	9	1
3	9	1	2	7	5	8	6	4
8	6	4	5	2	1	3	7	9
4	6	1	3	9	2	7	8	5
3	1	3	9	2	7	8	5	6
2	5	3	1	8	7	4	9	6
9	3	7	2	5	4	1	6	8
5	1	2	6	7	8	3	4	9
6	4	8	7	1	3	5	2	9

V	A	B	V	N	V	I	R	E	K	R	R	V	V	H
I	D	I	A	L	Z	E	T	E	V	R	V	K		
R			S	U	T	R	V	K	O	R	B	I	L	
R			L	U	I	A	P	N	K	A		P		
I	G	I	E	A	V	N	L	A	I	R	R	E	H	
	A	Z	T	N	I	A	O	B	A	V	K			
O	S		N	E	R	U	V	A	O	O	S	V	J	
A	R		Z	O		O	E	T	O		P	E		
O	S	O	M	E	T	H		X	U		E	K		
A	R		T	A	K				V	P	T			
V	V	B	V	D	V				L	V	P	S	E	
N		Z	E							M	E			

Ane Legarreta

ZUZENDARIA



ORTZI-MUGA BERRIA MUSIKARI

“Bost urte nituenean eman nuen izena Galdakaoko musika eskolan, baina ez nuke inoiz imajinatuko nire ogibidea izango zenik. Instrumentuak aukeratzeko zailtasunak izan nituen hasieran; orain pianoa eta harpa maite ditut. Getxoko Musikalia Elkartean egiten dut lan gaur-gaurkoz. Sorotan Bele sinfonikoa proiektua dugu eskuartean, baina izurriaren ondorioz kontzertuak atzeratu dira. Etorkizunera begira, nire ametsa orkestra bat sortzea da; ez da gauza erraza baina saiatu, saiaturiko naiz behintzat!”

“Musika klasikoa oso baloratuta dago euskal gizartean”

Zuzendari izateko hogeitaz urteko ikasketa ibilbidea egin behar izan du Ane Legarretak (Galdakao, 1994). Emakumea eta gaztea izanik, perspektiba desberdina du sektorearekiko. Galdakaoko Musika Bandan eta Getxoko Musikalia Elkartean aritu da zuzendari bezala, eta 2020an Euskadiko Orkestra zuzentzeko aukera izan zuen. Musikarik gabe bizitzari mamia falta zaiola dio.

 LEIRE REGADAS  HODEI TORRES

Txikitan hasi zinen musika ikasten.

Nire etxean beti esan didate “egin nahi duzuna, baina egin ondo”. Nik aukeratu nuen 5 urterekin musika ikasi nahi nuela eta eskolaz kanpoko beste jarduera batzuekin uztartzen nuen. Galdakaoko musika eskolan eman nituen lehen urratsak, denbora-pasa zen niretzat. Inoiz ez nuen imajinatuko nire ogibidea izango zenik.

Ez da zure kasua, baina batzuek alde batera uzten dituzte musika ikasketak. Zergatik gertatzen dela uste duzu?

Musika ulertzeko aurretik egin behar den lana oso luzea da, denbora behar da kontzeptuak barneratzeko. Musikaren bitartez adierazteko kapaza izan arte posible da urteak eta urteak behar izatea. Normala da ume askok ez lortzea motibazio hori. Pedagogia moldatu beharko litzateke, praktikoago egin, txikitatik instrumentuak esploratzeko aukera izateko.

Hala ere, instrumentu bat jotzen

ikasteko inoiz ez da berandu?

Ikasteko inoiz ez da berandu, jende guztiari gomendatzen diot. Musika gabe bizitzari mamia falta zaio; momentu konkretuak gogoratzen laguntzen digu, sentimenduekin eta lekuekin erlazionatzen dugu... Fran Lebowitz idazleak dioen bezala, minik egiten ez duen droga bat da.

Beethoven, Mozart, Bach edo Wagner izan ohi dira musika klasikoaz hitz egiten denean burura datozkigun konpositoreak. Non daude emakumeak?

Mendebaldeko musika klasikoko konpositore eta zuzendariengan pentsatzen dugunean ehuneko ehunean gizonezko zuri europarrak dira. Baina badira hainbat liburu eta dokumentu emakumezko paregabeen historiak biltzen dituztenak, Nadia Boulanger eta Clara Schumann buruzkoak, adibidez. Liburu bat gomendatu beharko banu, Pilar Ramosen *Feminismo y música* (Feminismoa eta musika) gomen-datuko nuke.



“Orkestra sinfonikoetan eta hauen zuzendaritzan parte hartzea debekatua izan dute emakumeek”.

Zer-nolako harrera du gizartean musika klasikoak?

Musika klasikoa oso baloratuta dago euskal gizartean. Ikusi besterik ez dago zer-nolako kalitatezko orkestra sinfonikoak ditugun. Estatuko mailarekin alderatuz, zorte handia dugu hemen. Arazoa da barneratze prozesu luzea behar duela musikak eta zentzu horretan oso erraza dela amore ematea, batez ere gazteen artean. Bigarren aukera eman beharko genioke musika klasikoari.

Herritarrak musika klasikora hurbiltzeko xedez hainbat taldek bertsioak grabatu dituzte Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin.

Gurutzaketa horien aldekoa zara?

Gutiz. Gaur egun entzuten diren taldeen eta orkestra sinfonikoen arteko mix-ak beharrezkoak dira, arrazoi horregatik. Gainera, moldaketa lana ondo egin baldin badago ez du zertan kalitatea aldatu behar. Fernando Velázquezek Euskadiko Orkestrarako egindako lana bikaina da, esaterako.

Emakumea zara, gaztea... Oztoporik izan duzu zure bidea egiteko?

Emakume izateagatik aurkitu ditut batzuetan zailtasunak, bai. Emakume gutxi gaude zuzendarien munduan, baina tira, komunitatea indartsua da eta pertsona politak aurkitu ditut bidean.

Zein da sektore honetan emakume gutxi egotearen arrazoa?

Orkestra sinfonikoetan eta baita hauen zuzendaritzan ere, beste ogibide askotan bezala, emakumeek debekatua zuten parte hartzea. Datu bortitz bat: Vienako urte berriko kontzertuan emakumeek ez zuten orkestran parte hartzeko aukerarik izan 1997ra arte! Eta oraindik ez du emakume bakar batek ere zuzendu kontzertu hori...

Arlo prekarizatua da musikarena? Zaila da lanpostu bat lortzea?

Sektore honetan ez dago geldi egoteko aukerarik, egunero kontaktuak egin behar dituzu, sormen prozesuak alderatu, entsegu teknikak konpartitu bestekin batera ikasteko... Mugitzen baldin bazara eta hobetzeko nahia alboratzen ez baduzu, zure bidea aurkituko duzu. Nahiz eta orain segurtasun neurrien ondorioz egoera zaildu den.

Bateraezinak dira musika zuzendari izatea eta reggaettoa edo trapa entzutea?

Nik denetarik entzuten dut, momentu bakoitzak bere musika duela deritzot. Trapa ez dut bereziki gustuko, baina agian urte batzuen bueltan beste perspektiba batekin ikusiko dugu; azken finean, musika gizartearekin batera aldatzen da eta gizarte horren isla ere bada. Egia da sormen prozesu “erraza” duen musika gutxiestea ohikoa dela. Baina edonork ezin dezake egin, hor dago koxka. Abesti bat sortzeko non elkartu diren, zeri buruz hitz egin duten, zertan oinarritu diren... irudikatzen dut nik, ikuspuntu horretatik aztertzen saiatzen naiz.

Musikan, bizitzan bezala, ikasketak ez du etenik?

Hala da, eta bizitzan bezala, zenbat eta gehiago jakin, orduan eta gutxiago dakizula konturatzen zara. Ez bakarrik musika egiterakoan, musika horren atzean dagoen historia eta oinarri ere ari naiz. Musika klasikoak istorio pilo bat ezkututzen ditu noten atzean. ●



ERTZAI erakunde iraultzailea sortu dute polizia gazteek



The Basque Mandelak adierazi ostean ertzainek erosi dutela kriston helikopterua eta berak ere nahi dula holako aparatuba, EH Bildu bozkatzan duten polizia gazteek ERTZAI eratu dute, gazte erakunde independentista eta sozialista, "herri honen zerbitzura dagoen polizia demokratiko eta euskaldunaren adar millenniala", Urtzi Paio bozeramaileak azaldu bezala. "Azkenaldion gure herriak abandonatu duen 'Jo eta ke' leloa berreskuratzeko garaia heldu da", gaineratu du Paio. Ertzaik oraindik ez du argitu zein izango diren beren lan lerro nagusiak. Hasteko, ELA Berrozi adar sindikalarekin batera sei eguneko jardunaldi batzuk antolatu dituzte "Arkaute ala Arkauti, nola idazten da egokien?" izenburupean.

Beranduegi jakin duenez, Polizia automataren barruan badira gazte sozialista gehiago, baina ez besteak bezain burgesak, koordinadora bat sortu nahi dutenak. Taldeari zein izen jarri erabaki ezinik dabilta ordea, hiztegi jada ez baita geratzen erabili ez duten hitz guairik. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Aminstia
Palbo Haselenzat



Twitter



FIFA21-PlayStation Euskal Liga, 1.000 gol independentziantz



Indepe bat Realak Osasunari
sartutako gola ospatzen

Game Erauntsia, Gu ere Bai! eta Hamai-ka Telebistak antolatuta, "FIFA21 Euskal Liga" txapelketa jokatu da datozen asteetan PlayStationean. "Euskal selekzioaren ofizialtasuna aldarrikatu dugu lau haizetara, etxeko txokotik mundu zabalerat", azaldu du Fri1521ki gamer profesionalak baikorkiro. "Are gehiago, jokalariek sartutako gol birtual bakoitzarekin pauso bat emango dugu Euskal Herriaren independen-

tziarantz". Finala apirilaren 4an jokatu da, Aberri Egunean, Hamaika Telebistaren chiringuitoan, bi zaleturen begiradapean, bezperan Espainiako ereserkia eta Erregea protagonista izango dituen Koparen finala jokatu eta gero. Gauza bat delako liga propioa jokatu nahi izatea PlayStation-arekin jo ta su, eta beste bat gure taldeak ikusi nahi izatea benetako Futbol Ligatik kanpo lehian. ●



Liburu-dendak
Kioskoak
Papertegiak
Kale-saltzaileak
Jostailu dendak
Denda ekologikoak
Nekazarien kooperatibak
Pentsu dendak
Loradendak
Belar dendak

...

Erosi herrian

Ez gaudela zure denda kuttunean?

Deitu diezagula dendariak eta ziztu bizian bidaliko ditugu:
679 81 73 54 / okorta@argia.eus

Zuzenean ARGIA n erosteko

www.argia.eus/azoka
943 37 15 45

Artikulu hauek erosita
ekarpen ekonomikoa
egingo diozu

**Bilboko Mbolo Moye
Doole** elkarteari.

Atera aldarria kalera
euskaraz eta wolofez!

24€



Eskaerak egiteko:

943 37 15 45

argia.eus/azoka